




Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra, 2017-2028



Aurkibidea

1 Sarrera, erreferentziako esparrua eta aurrekariak	1	10 Ingurumenean sor daitezken eragin adierazgarrien analisia	29
2 Aurrekariak eta 3. plana idaztearen justifikazioa	2	10.1 Inpaktuen identifikazioaren eta balorazioaren hastapenak	29
3 Aurretzako kontsulten emaitza	4	10.2 Inpaktuen identifikazioaren eta balorazioaren planteamendua	29
4 Proposatutako planaren helburuak, irismena eta hautabideak	5	10.3 Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa	29
4.1 Helburuak	5	10.4 Planaren jardunen ondorioak	31
4.2 Planaren funtsezko helburuak	5	10.4.1 Enkartazioetako eremu funtzionala	33
4.3 Ingurumen-helburuak	6	10.4.2 Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionala	33
4.4 Bildutako lurralde-planen edo plan sektorialen gainean aurreikus daitezkeen eraginak	6	10.4.3 Mungiako eremu funtzionala	33
5 Planaren deskribapena	7	10.4.4 Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionala	33
5.1 Proposatutako jardunen balorazioa eta programazioa	7	10.4.5 Debarreneko eremu funtzionala	33
5.1.1 Programen definizioa	7	10.4.6 Urola-Kostako eremu funtzionala	33
5.1.2 Planaren balorazioa eta inbertsioen programazioa	14	10.4.7 Donostia-Beterriko eremu funtzionala	34
6 Planaren garapen aurreikusgarria	16	10.4.8 Toloserriko eremu funtzionala	34
7 Ingurumenaren egungo egoera	17	10.4.9 Goierriko eremu funtzionala	34
7.1 Sarrera	17	10.4.10 Debagoieneko eremu funtzionala	34
7.2 Ingurune fisikoa	17	10.4.11 Durangaldeko eremu funtzionala	34
7.3 Ingurune biotikoa	17	10.4.12 Arratiako eremu funtzionala	34
7.3.1 Biodibertsitatea	17	10.4.13 Aiarako eremu funtzionala	34
7.4 Baso-ingurunea	19	10.4.14 Araba Erdialdeko eremu funtzionala	35
7.5 Paisaiaren kalitatea	19	10.4.15 Arabako Errioxako eremu funtzionala	35
7.6 Ingurune sozioekonomikoa	19	11 Natura 2000 Sarean eta beste gune babestu batzuetan izan ditzakeen ondorioak	36
7.7 Ingurumen-arriskuak.	20	11.1 Alternatibak hautatzeko irizpideak	36
8 Planaren ingurunearen ingurumen-diagnostikoa	21	11.2 Natura 2000 Sareko lekuak eta eragindako beste gune babestu batzuk	36
8.1 Diagnostikoaren planteamendua	21	11.2.1 Eragindako lekuak eta espazioak	36
8.2 Ingurumen-sentsibilitatearen aldagaiak	21	11.2.2 Funtsezko elementuak eta kontserbazio-helburuak	37
8.3 Xede-sarearen diagnostikoa, eremu funtzionalen arabera	23	11.3 Natura 2000 Sareko guneen gutun-azalen proiektuko jarduketan inpaktuak identifikatzea	37
8.4 Ingurumen-unitate homogeneoen definizioa	26	11.4 Ohiko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak	39
8.4.1 Errepide-tarteak kategorizatzeke planteamendua	26	12 Ingurumen-inpaktuaren neurri prebentiboak eta zuzentzaileak	41
9 Hautabideak aukeratzeko prozesua	27	12.1 Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen ingurumen-hobekuntzako programak	41
9.1 Hautabideen azterketa	27	12.2 Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorreko errepideetako jardunen ingurumen-garapenerako gidalerroak	41
9.1.1 o hautabidea edo ez esku hartzekoa	27	12.3 Jardun bakoitzerako ingurumen-neurri zuzentzaile espezifikoen programa	42
9.1.2 Plangintza berriko hautabidea	27	13 Planaren ingurumen-edukiak betetzen diren gainbegiratzeko programa	45
9.1.3 Joera-hautabidea	27	13.1 Txostenak	46
9.1.4 Planteatutako hautabideen konparazioa	27		
9.2 Hautatutako soluzioaren deskribapena	28		
9.3 Jardunetarako hautabideen azterketa	28		

1 Sarrera, erreferentziako esparrua eta aurrekariak

2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorrerako "Hasierako Dokumentu Estrategiko" honen bitartez, erantzun nahi zaie planen eta programen ingurumen-ebaluazioari buruzko egungo legerian biltzen diren hasierako tramiteei eta aurretiazko kontsultei.

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babestekoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

2 Aurrekariak eta 3. plana idaztearen justifikazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legeak (EAEL, 1989, 121) —azaroaren 8ko 2/1991 Legeak (EAEL, 1991, 300) aldatzen duenak— ezartzen du plangintza sektorialeko tresna honen edukia eta erregimena. Tresna honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen sareak koordinatzea, baita horien aplikazio-esparrua edo planaren mende dagoen sarea ere, hau da, lehentasuneko interesa duen sareko errepide guztiak eta oinarrizko sareko errepideetako batzuk.

Azaroaren 8ko 2/1991 Legearen bidez, osatu zen planaren mende dagoen sareko errepideen zerrenda eta legez kanpo geratu zen horien aldaketa teknikoa.

Bitan egin dira aldaketa teknikoak: Errepideen Lehen Plan Orokorren berrikuspenean —abenduarren 30eko 355/1992 Dekretu bidez egindakoa (EAEL, 1993, 3)— eta 1999-2010 aldiari dagokion Errepideen Bigarren Plan Orokorrean —ekainaren 8ko 250/1999 Dekretu bidez onartua (EAEL, 1999, 271)—. Aldaketa tekniko horiek mugatu dira errepide-sareko tarte tradizional batzuk eraiki berri diren beste tarte batzuekin funtzionalki ordeztara.

Dena dela, 1999-2010 aldiari dagokion Errepideen Bigarren Plan Orokorra onartu ondoren, planaren mende dagoen errepide-sareko errepideak berrikusteko beharra sortu zen. Berrikuspen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legea aldatzen duen urriaren 4ko 5/2002 Legearen bitartez egin zen; izatez, Lege horretan jaso da planaren mende dagoen errepide-sarearen katalogo berria, maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen eranskina ordeztzen duena.

Azkenik, azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuaren bidez onartu zen 2005-2016 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorra, Plan berriaren zuzeneko aurrekaria.

Ondoren, onartu diren Errepideen Plan Orokorren bertsioen, tramitatutako berrikuspenen eta dagozkien onarpeneko dokumentu ofizialen laburpen-taula txertatu da:

EAEko Errepideen 1. Plan Orokorra

- 1987-1998
- 283/1989 Dekretua, abenduaren 19koa, Errepideen Lehen Plan Orokorra onartzen duena.

Seiurteko berrikuspena

- 1992-2004
- 355/1992 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Lehen Plan Orokorren aurreikuspena onartzen duena.

EAEko Errepideen 2. Plan Orokorra

- 1999-2010
- 250/1999 Dekretua, ekainaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorra onartzen duena.

Seiurteko berrikuspena

- 2005-2016
- 307/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorren aurreikuspena onartzen duena.

Planaren mende dagoen sarearen erreferentziako katalogoari dagokionez —hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legea aldatzen duen urriaren 4ko 5/2002 Legean finkatutako katalogoari dagokionez—, hauek dira errepideen zerrendan egindako aldaketak:

- Sustatzea komeni diren ibilbide berriak gehitu dira —lurralde bakoitzaren barruan sarea egituratzeko duten funtzioagatik sustatzea komeni direnak, edo bi lurraldetako alboko eskualdeak konektatzeko duten funtzioagatik sustatzea komeni direnak, edo probintzien edo autonomia-erkidegoen arteko ibilbideen parte izateagatik sustatzea komeni direnak—.
- Askotariko arrazoiak tarteko, funtzionaltasuna galdu duten errepide batzuk kanpoan geratu dira.
- Errepideen izendapenari, ibilbideari eta luzerari buruzko datuak eguneratu dira, baita horien inguruko oharrak ere, eskumenen banaketara eta Auzitegi Konstituzionalaren erabakietara egokituta.

Zehazki, honako errepide hauek txertatu zaizkio planaren mende dagoen errepide-sareari:

- Lehentasunezko intereseko sarean, Donostiako bigarren ingurabidea eta, behin aldaketa egin ondoren, N-121 errepidea (ibilbide horiek maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 5. artikulua 1.a atalaren baldintza bat edo batzuk betetzen dituzte).
- Oinarrizko sarean, A-124, BI-631, BI-633, BI-635, BI-637, BI-639, BI-625, BI-604 eta GI-631 errepideak (lurralde historiko bakoitzeko ardatz egituratzaile gisa funtzionatzen dutenak) eta BI-638 eta GI-638 errepideak (bi lurraldetako alboko eskualdeak lotzen dituztenak).

Errepideen Plan Orokorraren mende dagoen sareaz kanpo geratu dira N-130 eta GI-120 errepideak, haien funtzionaltasuna galdu baitute —lehenengoaren kasuan, A-15 ordezkotako ibilbidearen ondorioz, eta, bigarrenaren kasuan, ordezkotako N-240 eta N-I errepideetan egindako hobekuntzen ondorioz—.

Era berean, sare horretako zenbait errepideren ibilbideen eta luzeren adierazpenean eragina duten aldaketa teknikoak sartu dira; aldaketa horiek sarean egin diren esku-hartzeen ondoriozkoak dira, edo tarte batzuk beste batzuekin funtzionalki ordeztearen ondoriozkoak.

Horrez gain, ibilgailu astunen bolumen handia hartzen duten GI-632 eta BI-632 errepideak lehentasunezko intereseko sarean txertatu dira, N-636 izenarekin.

Azkenik, beste aldaketa batzuk egin dira errepide baten edo errepide-tarte baten gaineko eskumena duen Administrazioa zuzen kontsignatzeko edo, hala badagokio, lurraldetasun-arrazoiak tarteko, errepide-tarte bat ibilbideaz kanpo uzteko. Hala gertatzen da errepide hauetan eragina duten aldaketekin:

- A-8 autobidea, Estatuaren eskutik Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde komunitarioa, eta, gero, erakunde komunitariatik lurralde historikoetara funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzearen ondoriozko egoera islatzeko.
- N-I errepidea, Trebiñu Konderriko tarte kanpo uzteko, ekainaren 18ko 132/1998 Auzitegi Konstituzionaleko epaiak (RTC 1998, 121) egindako konstituzio-kontrakotasuneko deklarazioaren ondoren.
- A-624 errepidea, kanpoan geratu da Burgos probintzian barrena egiten duen tarte.
- BI-624 errepidea, errepide horren kudeaketa eta ustiapena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Hirugarren Plan honek sare funtzionaleko proposamen berria barnean hartu beharko du.

3 Aurretiazko kontsulten emaitza

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua dioenaren arabera, "ingurumen-organoak plan edo programaren zirriborroari eta hasierako agiri estrategikoari buruzko kontsultak egingo dizkie eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei" eta, gehitzen duenez, "kontsultei emandako erantzunak jaso ondoren, ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-agiria egin eta sustatzaileari eta organo substantiboari igorriko die, egindako kontsulten ondorioz jasotako erantzunekin batera". Administrazio Publiko eta herritar interesdun hauek erantzun dute:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak	X
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak	X
Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak	X
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak	X
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzak (Arabako lurralde-ordezkaritzak)	X
Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak	X
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzak (Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzak)	X

Ondoren, laburbilduko dira eraginpean dauden administrazioei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen-alderdirik adierazgarrienak:

- Errepideen Hirugarren Plan Orokorrean jasotzen diren jardunetako batzuek zuzenean edo zeharka izan dezakete eragina espazio babestuetan, espazio horien barruan edo espazio horietatik hurbil gara baitaitezke.
- Ingurumenaren ikuspuntutik justifikatu beharko da jardun horiek zonarik kalteberenetan garatzeko beharra eta horietako bakoitzean sortzen den inpaktuaren balorazioa.
- Gaur egungo bide-sareak basafaunaren desplazamenduetarako eragiten duen hesi-efektua aipatu da. Alderdi hori aintzat hartu beharko da aurreikusten den bide-sare berrirako jardunak planteatzeko garaian; izatez, bide-sare berriaren helburua izango da hesi-efektua arintzea eta, ahal den heinean, efektu hori murriztuko duten neurriak proposatzea.
- Planerako inspirazio izan beharko luketen helburuak proposatu dira (mugikortasun ez hain motorizatua sustatzea; ibilgailu pribatuaren erabilera ez sustatzea eta pertsonen joan-etorrietarako ordezeko bitartekoak sustatzea; egungo azpiegituren kudeaketa efizientea sustatzea eta ez azpiegitura berriak eskaintzea). Espedientean bildu diren txostenetan, Errepideen Hirugarren Plan Orokorra prestatzean aintzat hartu beharreko zenbait irizpide ere jaso da: ibilgailuen okupazioa gehi dadin sustatzea; azpiegitura berrien iragazkortasuna gehi dadin erraztea eta, hartara, hesi-efektua murriztea; ibilgailu pribatuaren erabileraren aurrean, beste garraibide batzuen erabilera sustatzea...
- Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean Balio Estrategiko Handiko kalifikazioa duten lurzoruen gaineko eraginari dagokionez, azkenean onartzen den planak kontuan izan beharko du Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak lurzoru horien okupazioari buruz adierazten duena.

4 Proposatutako planaren helburuak, irismena eta hautabideak

4.1 Helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan eta 27/1983 Legean —Autonomia Erkidegoko erakunde komun eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean— Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra idazteko eskumenen esparrua ezarri zen, eta, horren ostean, errepideen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak bi errepide-plan orokor eta horien berrikuspenak prestatu eta onartu ditu.

Planaren azken egitekoa da Planaren mende dagoen sarearen arloan zehaztea 2017-2028 aldirako egin beharreko aurreikuspenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sarearen koordinazioa ziurtatuta.

Hala ere, garrantzi handikoa da plana ez izatea obren zerrenda eta ordenamendu hutsa, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoko etorkizuneko errepide-sarearen konfiguraziorako dokumentu estrategikoa. Horretarako, horizonte-urtean izango den errepide-sare horretan kokatu beharko da plana.

Haatik, krisialdi ekonomikoaren ondorioz baliabideak murriztu diren testuinguruan, eta jardunak lehenesteko garaian, aldaketak egin dira indarrean dagoen planaren garapenean; izatez, hirurteko guztietako jardun gehienak atzeratu dira, lehen hirurtekoak izan ezik (2005-2007) (Agindua, 2012ko urriaren 31koa, Euskadiko Errepideen Plan Orokorrean programaturiko zenbait jarduketa burutzeko epeak eta lehentasun-hurrenkera aldatzeko dena). Horrekin lotuta, gaur egungo bide-sarearen integrazioarako ingurumen-helburuak ere atzeratu dira. Orain agertoki ekonomiko berrirako egokitzapena eta gogoeta planteatu da.

Errepideen sarea ekonomiarako funtsezko garraibide gisa finkatu eta egokituko bada, helburu estrategiko horien erreferentziari eutsi beharko zaio, plan berrirako eskura dauden baliabide ekonomikoetara baldintzatuta eta koordinaziorako eskumena duten administrazioen kudeaketara baldintzatuta, betiere garraio-sistema osagarri eta efiziente baten barruan. Plan berriak bide-azpiegituren esparruan soilik jardungo du —haren izaera sektorialari dagokion bezalaxe—; alabaina, plan berria formulatzean garraioen sistema globala hartuko du kontuan, lurralde-antolamenduaren eta -plangintzaren gidalerroen barruan eta Europako Batzordearen garraiorako helburu orokorren barruan. Izatez, garraioen sistema global horrek garraioaren osotasunean eragina duten alderdiak jorratzen ditu: ibilgailuen energia-efizientzia, logistika, garraibide jasangarriagoak, eta kutsadura atmosferikoa, metaketa, istripu-tasa eta ingurumen-inpaktua murrizteko kudeaketa.

4.2 Planaren funtsezko helburuak

Garrantzi handikoa da plana ez aztertzea obren zerrenda eta ordenamendu huts baten moduan, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoko etorkizuneko errepide-sarearen konfiguraziorako dokumentu estrategiko gisa. Horretarako, Planaren 2028 horizonte-urtean izango den sare horretan kokatu beharko da plana.

Etorkizuneko posizionamendu horren ondorioz, Plan honetan barnean hartzen diren jardunak behar-beharrezkoak izango dira errepideen sarea honako printzipio estrategiko hauekin, gutxienez, finkatzeko eta egokitzeko:

- Herritarrei datozen urteetako bizi-mailaren araberako bide-sarea eskaintzea.
- Enpresa-ehunari etengabe egokitzen den lurreko komunikazio-sarea erraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko konektagarritasuna mantentzeko eta hobetzeko, ahal den heinean bederen.
- Lurraldea eta herrien arteko komunikazioa orekatzea.
- Bide-sarearen hobekuntza eta ingurumenaren errespetua eta babesa bateragarri egitea.
- Bide-segurtasuna areagotzea eta istripu-arriskua murriztea, errepideen erabilzailearentzat.

ldo horretan, eta Planaren berezko helburu gisa:

- Ibilbideek bete beharreko oinarrizko funtzioen araberako errepide-sarea zuzkitzea lurraldeari.
- Errepide-sareak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko garraio-politikan betetzen duen egitekoa aintzat hartzea: Euskal Autonomia Erkidegoko garraio-sistema osoaren jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa indartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarea Europan zeharreko sarean (TEN) integra dadin erraztea.
- Bide-sarearen eta lurraldea zeharkatzen duten konexioko korridore handien (Ekialde-Mendebalde eta Iparralde-Hegoalde) arteko artikulazioa hobetzea.
- Kanpo-erlazioak (mugako konexioak) eta nodo nagusiak (portuak, aireportuak, plataforma logistikoak) hobetzea.
- Lurraldea modu orekatuan egituratzea, lurralde-antolamendurako gidalerro orokorren arabera.
- Zona bakoitzerako antzeko azpiegituren zuzkidura-maila lortzea, alderdi determinatzaileak kontuan izanik, hala nola orografia eta populazio-kokalekuen dentsitatea.
- Lurraldeko zona guztiei irisgarritasun-maila egokia eskaintzea —lehentasunez jardungo da okerren zuzkituta dauden zonetan edo hedapen ekonomiko adierazgarriko zonetan—.
- Zerbitzatzen den zona bakoitzaren baldintzatzaileetara egokitzea bide-sarea, ingurumenaren eta hirigintzaren gaineko inpaktuak minimizatuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoan eta autonomia-erkidego mugakideetan errepideen arloko eskumena duten beste erakunde eta organismo batzuekin koordinatzea eta jardunak lehenestea.
- Inbertsioen eraginkortasun maximoa bermatuko duen inbertsio-programazioa ahalbidetzea.
- Lurralde-antolamenduan, hirigintzan, ingurumenean eta antzeko beste arlo batzuetan eskumena duten erakundeekin eta organismoekin jardunak koordinatzea.

Azkenik, Hirugarren Planaren helburu estrategikoak izango dira: agertoki ekonomiko berrira egokitzea; errepideen sarea ekonomiarako funtsezko garraibide gisa finkatu eta egokituko bada, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kontuan hartzea; eta errepide-sarearen koordinaziorako eskumena duten administrazioek errepide-sarearen bestelako kudeaketa planteatzea, garraio-sistema osagarri eta efiziente baten barruan.

4.3 Ingurumen-helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorren helburu nagusia da egungo eta etorkizuneko errepide-sarearen eta ingurumen-prozesuen arteko integrazioa hobetzea. Ingurumen-helburu nagusi hori ondoren zerrendatuko den helburu espezifikoaren arabera planteatzen da —era berean, helburu espezifiko horiek jasota daude ingurumenaren arloan indarrean dauden eta plangintzaren mende dagoen lurraldean aplikatzekoak diren estrategietan eta programetan—.

Ingurumen-dokumentu estrategikoan bertan berrikusi dira ingurumenaren arloko helburuak, gidalerroak eta estrategiak, indarrean dauden ingurumen-programen arabera:

- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babestekoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa.
- Europar Batasunaren ingurumen-arloko zazpigarren ekintza-programa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Esparru Programa, 2020.
- Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Estrategia, 2030
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia, 2020
- Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2050
- Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan jasotzen diren garapen jasangarriko printzipioak.

Garapen-irizpideak

1. Etorkizuneko belaunaldiak haien premiak gogobetetzeko duten ahalmena arriskuan jarri gabe, egungo premiak gogobeteko dituen garapen jasangarria bermatzea.
2. Natura-kapitala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek egiten dituzten zerbitzuak babestuta. Biodibertsitatearen galera gelditzea.
3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.
4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
5. Kultura-ondarea kontserbatzea eta hobetzea.

4.4 Bildutako lurralde-planen edo plan sektorialen gainean aurreikus daitezkeen eraginak

Plan honen mende dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sarea ezin da funtzionaltasunaren ikuspuntutik ebaluatu, eta ezin dira aztertu hura optimizatzeko egon daitezkeen aukerak edo soluzioak, baldin eta ez bada aurrez analisirik egiten eta ez badira aurrez aintzat hartzen zenbait mailatan eta sektoretan dauden plangintza-alderdiak.

Hartara, garraioaren sektorearen esparruan eta, zehazki, errepideei dagokienez, aintzat hartu beharko liriteke, Planaren irizpideei eta helburuei dagokienez zein goi-mailako plangintzen izaera lotesleko soluzioei dagokienez:

- Garraioari buruzko Liburu Zuria (Europako esparrua).
- Azpiegitura, Garraio eta Etxebizitza Plana 2012-2024 (estatuko esparrua).
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (autonomia-erkidegoko esparrua).

Lurraldearen antolamenduari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroez gain, kontuan izan beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea banatuta dagoen 14 eremu funtzionaltako Lurralde Plan Partzialak.

Ingurumen-esparruari dagokionez, kontuan izan beharko dira lurraldearen natura-balio nagusiak, egungo egoera eta egungo bide-sistemarekiko erlazioa, baita horiek etorkizuneko balizko jardunetarako eragin ditzaketen murrizketak ere. Adierazitakoaren arabera, ingurumenaren arloko Lurralde Plan Sektorialen analisiari ekin beharko zaio, betiere ingurumen-gaika banakatuta (ibaien ertzak eta errekek, nekazaritza eta basogintza, itsasertza, eta abar). Ingurumen-gai zehatzagoen arloko bestelako plangintzak ere hartu beharko dira kontuan —hala nola natura-baliabideak antolatzeko planak—, eta hori Planaren soluzioen proposamenen esparruan eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko azterketaren esparruan egin beharko da.

Ingurumen-dokumentu estrategikoan deskribatzen dira aurreikus daitezkeen gorabeherak.

5 Planaren deskribapena

Sarearen ezaugarri fisikoen eta geometrikoen arloko gaur egungo egoerari buruzko diagnostikoa egiteak eskatzen du parametroetarako "estandar jasangarriak" ezartzea eta, hartara, plangintzak zer tarteren ezaugarriak zuzendu behar dituen finkatzea —eskatzen den gutxieneko mailara ez iristeagatik zuzendu behar dituenak—.

Errepide-sarearen egungo egoera aztertu ostean, eta azken urteetan egindako obrak ezagutu ondoren, sarearen gaur egungo premiak diagnostikatu eta zehaztuko dira, honako irizpide hauetan oinarrituta:

- Ahalmen-ekasiak: zerbitzua, trafikoa eta zeharkako sekzioa, sarearen hierarkizazioaren arabera.
- Trazadura-urritasunak: kurbadura-erradioak eta maldak
- Abiadura-jaitsierak eta trafikoaren jarraitutasuna
- Sarearen arriskugarritasuna
- Garraio Sistema Adimendunak
- Sarerako irisgarritasuna
- Zeharbideak
- Ingurumen-alderdiak

5.1 Proposatutako jardunen balorazioa eta programazioa

5.1.1 Programen definizioa

Errepide-sarearen analisia eta diagnostikoa kontuan hartuta, eta finkatutako adierazleen eta lurralde historikoen arabera esku hartzeko irizpideak aintzat hartuta, definitu dira jardun-programak eta dagozkien azpiprogramak. Jardun-programa eta -azpiprograma horiek lurralde historikoen arabera aurkezten dira eta errepideen arabera antolatuta daude. Jardunak zer helburu teknikoetara egokitu behar duen adierazten da, baita Plana idazteko unean jardunak duen definizio-maila, jardunaren kostua eta Planaren indarraldian jardunak duen lehentasuna ere. (ikus 32. mapa).

Jardun bakoitzaren kostuari dagokionez, obra zibilaren balorazioaz gain, alderdi hauei buruzko honako aurreikuspen ekonomiko hauek ere hartu dira kontuan:

- Azterketen eta proiektuen idazketa.
- Eraginpean dauden ondasunak eta eskubideak eskuratzearen kostua.
- Eraginpean dauden zerbitzuak birjartzearen kostua.

Aurkezpenaren ondorioetarako, jardun-proposamenak honako jardun-programa eta -azpiprograma hauetan, gutxienez, sailkatuko dira:

- Obra nagusiko programa
 - Azpiegitura berriak
 - Galtzada bikoiztea
 - Ahalmena handitzea
 - Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea
 - Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea
- Sarea egokitzeko eta hobetzeko programa
 - Egokitzapena
 - Trazadura hobetzea eta plataforma handitzea
 - Bidegurutzeak berrantolatzea eta sarbideak kontrolatzea
 - Zeharbideak hobetzea
 - Zirkulazio motelerako bideak eraikitzea
- Hiri-saihesbideen programa

Ondoren, Planaren mende dagoen sarerako proposatutako jardunen laburpen-taulak gehitu dira:

LURRALDE HISTORIKOA: ARABA

Errepidea	Jarduna	Luzera (km)	HELBURU TEKNIKOAK		INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA			
			Proiektuaren abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioa (m)	Programan duen lehenetasuna	Definizioa-maila	Aurrekontu eguneratua (milioi €)	EAEko errepideen 2. Plan orokorraren alderaketa
PROGRAMA: OBRA NAGUSIA								
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK								
A-132	N-104 ERREPIDEAREKIKO KONEXIOA ARKAUTIN	2,1	80	7/10	2023-2025	AZTERTZEN	4,76	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA								
N-124	ARMIÑON - ZAMBRANA SAIHESBIDEAREN AMAIERAKO TARTEA BIKOIZTEA	6,4	100	2x7/10,5	2017-2019	ERAIKUNTZA PROIEKTU ONARTUA (25,50 ETA 31,90 KILOMETRO PUNTUEN ARTEAN)	30,70	2. PLANEAN SARTUTA
						GAUZATZEN 28,00 ETA 31,00 KILOMETRO-PUNTUEN ARTEAN		2. PLANEAN SARTUTA
N-124	ZAMBRANAKO BIKOIZKETA. SAIHESBIDEAREN AMAIERAREN ETA A-4106ko BIDEG. ARTEAN (GATZAGA BURADON)	3,4	100	2x7/10,5	2020-2022	TRAZADURA PROIEKTUA ONARTUA	15,64	2. PLANEAN SARTUTA
N-124	GATZAGA BURADON-BRIÑAS ARTEAN GALTZADA BIKOIZTEA	3,27	80	2x7/10,5	2026-2028	ERAIKUNTZA PROIEKTUA	9,98	2. PLANEAN SARTUTA
A-625	LAUDIO-AMURRIO TARTEA BIKOIZTEA	8,63		2x7/10,5	2020-2022	TRAZADURA PROIEKTUA LUIAONDOKO SAIHESBIDEAREN HASIERA ETA AMURRIO ARTEAN	20,00	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: AHALMENA HANDITZEA								
N-104	A-2134 BIDEG. - A-3110 BIDEG.	2,04	100-120	2x7/10,5	2023-2025	INFORMAZIO AZTERKETA IDATZIA	11,67	2. PLANEAN SARTUTA
N-240	AHALMENA HANDITZEA A-623 ERREPIDERA ARTE (LEGUTIO)	2,33	100	2x7/10,5	2023-2025	AZTERTZEN	10,59	2. PLANEAN SARTUTA DAGO A-623 BIKOIZKETA GISA LEGUTIANORAINO ETA N-240 ETA A-623 (LEGUTIO) ARTEKO LOTUNEA
AZPIPROGRAMA: SARBIDEAK BERRANTOLATZEA ETA KONTROLATZEA								
N-104	A-3110 BIDEG. - A-1 BIDEG. (VENTA DEL PATIO)	5,11	100	7/11	2026-2028	INFORMAZIO AZTERKETA IDATZIA	9,14	2. PLANEAN SARTUTA
N-622	IHURREKO LOTURATIK ETXABARRI DIBIÑAKO LOTURARA BITARTEKO SARBIDEAK BERRANTOLATZEA	2,99	120	2x7/10,5	2017-2019	AZTERTZEN	2,14	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-622	ETXABARRI DIBIÑAKO LOTURA ETA A-3600ko BIDEG. (LETONAKO LOTURA) ARTEKO SARBIDEAK BERRANTOLATZEA	4,84	120	2x7/10,5	2017-2019	ZATI BATEAN GAUZATUA (A-3608ko bidegurutzera. arte, Apodakako lotunea)	1,38	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-622	A-624 eta A-2521 KONEXIOKO ZERBITZU BIDEA	1,5	60		2020-2022	AZTERTZEN	0,43	2. PLANEAN SARTUTA
A-124*	TRAZADURAKO SAIHESBIDEAREN HASIERA - AMAIERA (PAGOS DE LEZA)	0,40		7/10	2020-2022	AZTERTZEN	(*)	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
AZPIPROGRAMA: LOTURAK ERAIKITZEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA								
A-1	A-1 ETA A-2134 ERREPIDEEN ARTEKO LOTUNE OSOA BIHURTZEA				2023-2025	AZTERTZEN	1,19	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-240	A-623 ERREPIDEKO LOTURA (LEGUTIO)				2023-2025	INFORMAZIO AZTERKETA IDATZIA	3,58	2. PLANEAN SARTUTA DAGO A-623 BIKOIZKETA GISA LEGUTIANORAINO ETA N-240 ETA A-623 (LEGUTIO) ARTEKO LOTUNEA
N-622	IHURREKO LOTURA ETA N-622 ETA ETXABARRI DIBIÑAKO LOTURAREN ARTEKO ERDIKO TARTEA BIRMOLDATZEA	2,99		2x7/10,5	2023-2025	AZTERTZEN	19,64	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
A-124 eta A-3226	A-3226 ERREPIDEKO LOTURA ETA SARBIDEEN KONTROLA ERRIOXAKO MUGARA ARTE				2023-2025	AZTERTZEN	3,22	2. PLANEAN SARTUTA
A-624	A-3618 ETA A-3620 ARTEKO ELKARGUNEA (Zumarren elkargunea) LOTURA BIHURTZEA				2020-2022	ERAIKUNTZA PROIEKTUA	4,29	2. PLANEAN SARTUTA

Errepidea	Jarduna	Luzera (km)	HELBURU TEKNIKOAK		INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA			
			Proiektuaren abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioa (m)	Programan duen lehenetasuna	Definizioa-maila	Aurrekontu eguneratua (milioi €)	EAEko errepideen 2. Plan orokorraren alderaketa
A-1/AP-1	AP-1 AUTOBIDEKO ARMIÑONGO LOTURAKO BIDE ADARRAREN ETA A-1 MADRIL-IRUN ERREPIDEAREN ARTEKO LOTURA HOBETZEA	1,9		2x11,25/14,75	2023-2025	ERAIKUNTZA PROIEKTUA	1,61	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
A-1/AP-1	AP-1 AUTOBIDEAREN SARBIDEAREN (ARMIÑONGO LOTURA) ETA A-1 MADRIL-IRUN ERREPIDEAREN ARTEKO BIDEBANATZEA HOBETZEA	1,9		2x11,25/14,75	2023-2025	AURRETIAZKO AZTERKETA	2,86	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
PROGRAMA: EGOKITZAPENA								
AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENA								
N-240	LEGUTIO - BIZKAIKO MUGA TARTEA EGOKITZEA (Legutio-Ollerietara tartea)	3,06	100	7/12	2017-2019	GAUZATZEN	9,28	2. PLANEAN SARTUTA
N-240	LEGUTIO - BIZKAIKO MUGA TARTEA EGOKITZEA (Ollerietara - Bizkaiko muga tartea)	3,1	100	7/12	2020-2022	AZTERTZEN	3,24	2. PLANEAN SARTUTA
A-124	ERRIOXAKO MUGA - EGOKITZAPENAREN HASIERA TARTEA EGOKITZEA, 54,31 ETA 55,65 KILOMETRO PUNTUEN ARTEAN	1,34	80	7/10	2020-2022	AZTERTZEN	0,75	2. PLANEAN SARTUTA
A-124	EGOKITZAPENAREN AMAIERA - TRAZADURAREN SAIHESBIDEAREN HASIERA EGOKITZEA (57,00 - 59,54 KP ARTEAN)	2,54	80	7/10	2020-2022	AZTERTZEN	4,42	2. PLANEAN SARTUTA
A-132	A-132 ERREPIDEAN, ELORRIAGA ETA EGILETA ARTEKO TARTEAREN TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA: A-4120 BIDEG. - EGILETA TARTEA	3,63	80	7/12	2020-2022	ERAIKUNTZA PROIEKTUA IDAZTEN	2,53	2. PLANEAN SARTUTA
A-623	LEGUTIO - BIZKAIKO MUGA TARTEA EGOKITZEA (GOMILAZ)	6,04	60	7/9	2023-2025	AZTERTZEN	4,90	2. PLANEAN SARTUTA
A-624	ALTUBE - ZIORRAGA TARTEA EGOKITZEA	8,59	60	7/9	2020-2022	ERAIKUNTZA PROIEKTUA IDATZIA	8,66	2. PLANEAN SARTUTA
A-624	AMURRIO-ARESPALDITZA TARTEA EGOKITZEA (tartearen gainerakoa)	3,78	60	7/9	2020-2022	ERAIKUNTZA PROIEKTUA	3,16	2. PLANEAN SARTUTA
A-624	ARTZINIEGA - BURGOSKO MUGA TARTEA EGOKITZEA	3,87	60	7/8	2026-2028	AZTERTZEN	2,69	2. PLANEAN SARTUTA
A-625	BIZKAIKO MUGA ETA SARATXO ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA	3,08	80	7/10	2020-2022	ERAIKUNTZA PROIEKTUA ONARTUA	19,69	2. PLANEAN SARTUTA
A-625	SARATXO ETA AMURRIKO EKIALDEKO SAIH. ARTEKO (A-624 ERREPIDEAREN LOTURA) TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA	1,01	80	7/11	2020-2022	TRAZADURA PROIEKTUA ONARTUA	7,60	2. PLANEAN SARTUTA
A-627	A-3006 ETA A-3002rako BIDEG. ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA	2,2	80	7/10	2023-2025	AZTERTZEN	1,23	2. PLANEAN SARTUTA
A-627	A-3006 ETA GIPIZKOAKO MUGA ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA	0,83	80/60	7/9	2026-2028	AZTERTZEN	0,58	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEEN ERAIKUNTZA								
A-624	AMURRIKO EKIALDEKO SAIH. ETA A-4602 ARTEKO ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEA	3,2		7/9 + ZIRK. MOTEL. BIDE	2020-2022	AZTERTZEN	2,18	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: ZEHARBIDEAK HOBETZEA								
A-132	AZAZETAKO ZEHARBIDEA	0,13			2026-2028	AZTERTZEN	0,28	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
A-624	ARTZINIEGAKO ZEHARBIDEA	1,17	60	7/8	2020-2022	AZTERTZEN	1,19	2. PLANEAN SARTUTA
PROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK								
AZPIPROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK								
A-124	BASTIDAKO SAIHESBIDEA	4,87	80	7/10	2026-2028	AURRETIAZKO AZTERKETA	8,69	2. PLANEAN SARTUTA
A-124	GUARDIAKO SAIHESBIDEA	3,31	80	7/10	2026-2028	AURRETIAZKO AZTERKETA	5,91	2. PLANEAN SARTUTA

(*) A-124 egokitzapenaren amaiera - trazaduraren saihsbidearen hasiera egokitzea (57,00 - 59,54 kilometro-puntuaren artean) jardunarekin batera egokitzeko

LURRALDE HISTORIKOA: BIZKAIA

Errepidea	Jarduna	Luzera (km)	HELBURU TEKNIKOAK		INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA			
			Proiektuaren abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioa (m)	Programan duen lehenetsuna	Definizio-maila	Aurrekontu eguneratua (milioi €)	EAEko errepideen 2. Plan orokorraren alderaketa
PROGRAMA: OBRA NAGUSIA								
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK								
ESKUINALDERAKO SARBIDE OSAGARRIA	BOLUE-UNIBERTSITATEA	3,47	80	2x7/10	2026-2028	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	50,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
AP-8/METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA	1b FASEA. PEÑASCAL-VENTA ALTA	3,7	100	2x7/10,5	2026-2029	BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA FALTA DA	196,50	2. PLANEAN SARTUTA
A-8	ERREKALDEKO SAIHESBIDEA ETA ERREKALDEKO ZUBIBIDEA ERAISTEA	2,4	80	2x9,9/12,9	2020-2022	HIRIGINTZA TRAMITAZIOA BILBOKO UDALAREN ESKU	153,50	2. PLANEAN SARTUTA
LAMIAKOKO IBAI AZPIKO TARTEA	URIBE KOSTA - BALLONTI ARDATZA	3,86	100	2x7/10,5	2026-2028	PLANGINTZA	380,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
BI-630	BI-636 - MALABRIGO	2,1	60	7/10	2026-2028	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	20,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
BI-631 (EKIALDEKO SAIHESBIDEA)	IBARSUSI - MIRAFLORES	3,0	80	2x7/10,5	2026-2028	BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA	126,70	2. PLANEAN SARTUTA
BI-631	MEÑAKA - BERMEO	6,6	80	7/10	2026-2028	EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA	114,73	2. PLANEAN SARTUTA MUNGIA-BERMEO AZPIEGITURA BERRI GISA, SOLLUBEKO TUNELA BARNE
BI-633	URBERUAGA - BERRIATUA	7,5	80	7/10	2017-2019	EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA	155,45	2. PLANEAN SARTUTA
N-240	BOROA - APARIO	6,0	80	2x7/10,5	2026-2028	EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA	112,03	2. PLANEAN SARTUTA
N-240	APARIO - IGORRE	1,5	80	7/12	2020-2022	EGUNERATU EGUNA, TUNELEN FORU ARAUA ETA BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA	14,22	2. PLANEAN SARTUTA
N-636	ELORRIO - KANPANZAR	5,2	80	7/10	2026-2028	BIDEEN PLAN BEREZIA TRAMITATU BEHAR DA	96,50	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
BI-635	GOROZIKA - ARIATZA	3,7	80	2x7/10,5	2026-2028	BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA	139,92	2. PLANEAN JASOTA TRAZADURA HOBETZEKO ETA PLATAFORMA HANDITZEKO
AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA								
BI-628	KUETO - GALINDO	0,83	80	2x7/10	2020-2022	PLANGINTZA	23,52	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: AHALMENA HANDITZEA								
AP-8	LARREA - ETXANO (3. erreia)	1,5	100	2x10,5/14	2020-2022	EGUNERATU EGUNA ETA BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA	35,01	2. PLANEAN SARTUTA
AP-8/METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA	1c FASEA. ARENAKO LOTURA ETA ZUBIBIDEA	3,0	100	2x10,5/14	2020-2022	BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA	60,12	2. PLANEAN SARTUTA
N-637	KUKULARRA-ENEKURI (TXIRIKORDA EZABATZEA)	1,0	-	-	2020-2022	GAUZATZEN	15,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-637	GURUTZETAKO LOTURA	1,5			2020-2022	ERAIKUNTZA-PROIEKTUA	5,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-637	RONTEGIKO AHALMENA HANDITZEA				2026-2028	PLANGINTZA	40,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
AZPIPROGRAMA: LOTURAK ERAIKITZEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA								
AP-8	AP-8 SARBIDE BERRIA / EUBAKO LOTURA				2026-2028	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	8,70	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA

Errepidea	Jarduna	Luzera (km)	HELBURU TEKNIKOAK		INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA			
			Proiektuaren abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioa (m)	Programan duen lehenetasuna	Definizio-maila	Aurrekontu eguneratua (milioi €)	EAEko errepideen 2. Plan orokorraren alderaketa
PROGRAMA: OBRA NAGUSIA								
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK								
AP-8	OKANGOKO LOTURA ERDIA				2020-2022	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	23,40	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-634	BOROA POLIGONOKO LOTURA				2020-2022	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	2,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-240	USANSOLO - BEDIA LOTURA				2017-2019	GAUZATZEN	3,67	USANSOLO-LEMO TARTEKO LOTUNEAK ERAIKITZEKO ETA BERRANTOLATZEKO 2. PLANEAN SARTUTA
PROGRAMA: EGOKITZAPENA								
AZPIPROGRAMA: TRAZADURA HOBETZEA ETA PLATAFORMA ZABALTZEA								
BI-630	MALABRIGO - TRASLAVIÑA	5,30	60	7/10	2020-2022	ERAIKUNTZA-PROIEKTUA	10,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
BI-630	TRASLAVIÑA - TURTZIOZ	4,70	60	7/10	2020-2022	ERAIKUNTZA-PROIEKTUA	10,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
BI-630	LA ESCRITA - AMBASAGUAS	3,57	60	7/10	2023-2025	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	15,00	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-634	EL CASAL - LAS CARRERAS	1,38	60	7/10	2020-2022	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	2,49	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
AZPIPROGRAMA: BIDE GURUTZUEN BERRANTOLAMENDUA ETA SARBIDEEN KONTROLA								
N-634	ZORNOTZA - IURRETA	9,01			2017-2019	PLANGINTZA / GAUZATZEN	8,14	2. PLANEAN SARTUTA. TRAZADURA HOBETZEKO ETA PLATAFORMA HANDITZEKO AZPIPROGRAMA GISA
N-634	IURRETA - GEREDIAGA				2017-2019	LEGEINTZALDIKO PROGRAMAREN BARRUAN	5,00	2. PLANEAN SARTUTA. ZALDIBAR-BERRIZ ETA BERRIZ-IURRETA 1 TARTEAK
N-634	EL GALLO - IRUBIDE				2017-2019	LEGEINTZALDIKO PROGRAMAREN BARRUAN	6,44	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-634	ETXEBARRIRAKO SARBIDEAK	0,7	-	-	2026-2028	EGUNERATU EGUNA ETA BIDE SEGURTASUNeko IKUSKAPENA	12,81	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
AZPIPROGRAMA: ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEEN ERAIKUNTZA								
BI-633	ZUBIBARRI-IRUZUBIETA	2,91	80	10,5/14	2023-2025	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	9,38	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
BI-636	BALMASEDA	0,3	80	10,5/14	2017-2019	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	1,97	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-240	ELEXONDO - BARAZAR	3,34	60	10,5/14	2017-2019	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	10,77	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-636	ELORRIO-KANPAZAR (hirugarren erreia)				2020-2022	HAUTABIDEEN PLANTEAMENDUA	5,40	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
PROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK								
AZPIPROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK								
BI-635	MUXIKAKO SAIHESBIDEA	6,0	80	7/10	2026-2028	BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA	66,25	2. PLANEAN SARTUTA
N-629	LANESTOSAKO SAIHESBIDEA	2,4			2026-2028	BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA	12,00	2. PLANEAN SARTUTA
N-634	LAS CARRERASKO SAIHESBIDEA	2	60	7/10	2026-2028	BIDEEN PLAN BEREZIA HASI AURREKOA	15,26	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA

LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA

Errepidea	Jarduna	Luzera (km)	HELBURU TEKNIKOAK		INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA			
			Proiektuaren abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioa (m)	Programan duen lehenetsuna	Definizioa-maila	Aurrekontu eguneratua (milioi €)	EAEko errepideen 2. Plan orokorraren alderaketa
PROGRAMA: OBRA NAGUSIA								
AZPIPROGRAMA: AZPIEGITURA BERRIAK								
AP-8	TXENPERENEA ETA IRUNGO HEGOALDEKO INGURABIDEAREN ARTEKO LOTURA ERDIA				2017-2019	Eraikuntza-proiektua	17,85	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-636 (GI-632)	ANTZUOLA - BERGARA TARTEA	5,00	80		2017-2019	Eraikitzen	59,02	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: GALTZADA BIKOIZTEA								
N-638	AIREPORTURAKO SARBIDEA: AMUTE - AIREPORTUA	0,95	60	2x7 + espaloiak + bidegorria	2020-2022	Eraikuntza-proiektua berrikusten	3,59	2. PLANEAN SARTUTA 2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: AHALMENA HANDITZEA								
AP-8	HIRUGARREN ERREIA ZARAUTZ ETA ORIO ARTEAN	3,4	80	2x10,5/14	2026-2028	Plangintza	17,06	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: LOTURAK ERAIKITZEA ETA BERRANTOLATZEA								
A-15	N-I ERREPIDEAREN KONEXIOA HOBETZEA BAZKARDON (ANDOAIN) TOLOSARAKO NORANZKOAN				2020-2022	Aurretzako azterketa	17,85	2. PLANEAN SARTUTA DAGO, SEI ANDOAINDAR-ADUNA ERREI HANDITZEKO
GI-20	SARBIDE BERRIAK (ILLUNBE, MARRUTXIPI, ZORROAGA...)				2026-2028	Aurretzako azterketa	9,52	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
N-1	LASARTEKO LOTURA BIRMOLDATZEA				2020-2022	Eraikuntza-proiektua	6,55	2. PLANEAN SARTUTA
N-1	IRURAKO LOTURAKO LAUGARREN BIDE ADARRA				2023-2025	Aurretzako azterketa	4,66	2. PLANEAN SARTUTA
N-636 (GI-632)	N-636 ERREPIDEAREN LOTURA, EZKIO-ITSASON				2026-2028	Aurretzako azterketa	12,00	2. PLANEAN SARTUTA
N-634	GLORIETA, GI-631 ERREPIDEAREKIN, ARROAN				2017-2019	Aurretzako azterketa	0,60	2. PLANEAN SARTUTA
N-634	AGINAGA (USURBIL) ETA LASARTE-ORIA ARTEKO SARBIDEAK BERRANTOLATZEA				2023-2025	Aurretzako azterketa	0,90	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
PROGRAMA: EGOKITZAPENA								
AZPIPROGRAMA: EGOKITZAPENA								
GI-631	AZKOITIA - ZUMARRAGA ZABALTZEA ETA HOBETZEA	13	60	7/10	2017-2019	Aurretzako azterketa	46,40	2. PLANEAN SARTUTA
N-1	ETZEGARATEN, GASTEIZERAKO NORANZKOAN, BIHURGUNEAK ZUZENTZEA	2	80	2x7 / 10,5	2023-2025	Eraikuntza-proiektua	56,84	2. PLANEAN SARTUTA
AZPIPROGRAMA: TRAZADURA HOBETZEA ETA PLATAFORMA ZABALTZEA								
AP-8	AP-1ETIK BILBORAKO LOTUNEA HOBETZEA (MALTZAGAN)				2026-2028	Eraikuntza-proiektua	11,35	2. PLANEAN SARTUTA
GI-638	DEBA - MUTRIKU BIHURGUNEAK ZUZENTZEA ETA HOBETZEA	3,9			2017-2019	Eraikuntza-proiektua	12,49	HIRUGARREN PLANAREN JARDUKETA BERRIA
AZPIPROGRAMA: ZIRKULAZIO MOTELERAKO BIDEAK								
AP-8	HIRUGARREN ERREIA ZARAUTZ - MEAGA	1,3		10,5 / 14	2023-2025	Aurretzako azterketa	2,95	2. PLANEAN SARTUTA
AP-8	HIRUGARREN ERREIA OIKIA - MEAGA	1,6		10,5 / 14	2020-2022	Aurretzako azterketa	4,88	2. PLANEAN SARTUTA
AP-8	HIRUGARREN ERREIA OIKIA - BEDUA	1,8		10,5 / 14	2020-2022	Aurretzako azterketa	1,82	2. PLANEAN SARTUTA
AP-8	HIRUGARREN ERREIA ZUMAIA - ITZIAR	2,5		10,5 / 14	2023-2025	Aurretzako azterketa	14,41	2. PLANEAN SARTUTA
AP-8	HIRUGARREN ERREIA MENDARO - ITZIAR	3		10,5 / 14	2023-2025	Aurretzako azterketa	37,68	2. PLANEAN SARTUTA

Errepidea	Jarduna	Luzera (km)	HELBURU TEKNIKOAK		INBERTSIOA ETA PROGRAMAZIOA			
			Proiektuaren abiadura (km/h)	Zeharkako sekzioa (m)	Programan duen lehentasuna	Definizioa-maila	Aurrekontu eguneratua (milioi €)	EAEko errepideen 2. Plan orokorraren alderaketa
PROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK								
AZPIPROGRAMA: HIRI SAIHESBIDEAK								
GI-631	ZESTOAKO SAIHESBIDEA	2,4	60	7/10	2023-2025	Plangintza	22,61	2. PLANEAN SARTUTA
N-634	ZARAUZKO SAIHESBIDEA	3,2	60	7/10	2026-2028	Eraikuntza-proiektua	50,11	2. PLANEAN SARTUTA
N-634	ORIOKO SAIHESBIDEA	1,1	60	7/10	2026-2028	Eraikuntza-proiektua	41,65	2. PLANEAN SARTUTA



5.1.2 Planaren balorazioa eta inbertsioen programazioa

Ondoren, EAerako zein hiru lurralde historikoetarako inbertsioen taulak eta grafikoak txertatu dira, programen arabera banakatuta.


Ondoren, EAerako zein hiru lurralde historikoetarako inbertsioen taulak eta grafikoak txertatu dira, programen arabera banakatuta.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN III. PLAN OROKORRAREN (2017-2028) INBERTSIOEN LABURPENA, PROGRAMEN ARABERA	
EAE	AURREKONTUA (MILIOI €)
Obra nagusia	2.078,38
Egokitzapena	358,61
Hiri-saihesbideak	222,48
EAE guztira	2.659,47
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA	AURREKONTUA (MILIOI €)
Obra nagusia	152,81
Egokitzapena	72,39
Hiri-saihesbideak	14,60
Araba guztira	239,80
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA	AURREKONTUA (MILIOI €)
Obra nagusia	1.775,97
Egokitzapena	97,40
Hiri-saihesbideak	93,51
Bizkaia guztira	1.966,88
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA	AURREKONTUA (MILIOI €)
Obra nagusia	149,60
Egokitzapena	188,82
Hiri-saihesbideak	114,37
Gipuzkoa guztira	452,79


Jarduketen aurrekontu-sailetan sartzen dira beharrezko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien zenbatespena eta horiek zaintzeko neurriak.



Programen araberako inbertsioa Bizkaian



Programen araberako inbertsioa Gipuzkoan



Ondoren, EAerako zein hiru lurralde historikoetarako Obra nagusia eta Egokitzapenak programetako inbertsioen banaketaren taulak eta grafikoak txertatu dira:

OBRA NAGUSIKO AZPIPROGRAMEN ARABERAKO INBERTSIOEN BANAKETA	
EAE	AURREKONTUA (MILIOI €)
Azpiegitura berriak	1.641,18
Galtzada bikoiztea	103,44
Ahalmena handitzea	194,46
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea	126,20
Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea	13,09
EAE guztira	2.078,38
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA	AURREKONTUA (MILIOI €)
Azpiegitura berriak	4,76
Galtzada bikoiztea	76,32
Ahalmena handitzea	22,26
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea	36,37
Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea	13,09
Araba guztira	152,81
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA	AURREKONTUA (MILIOI €)
Azpiegitura berriak	1.559,55
Galtzada bikoiztea	23,52
Ahalmena handitzea	155,13
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea	37,77
Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea	0,00
Bizkaia guztira	1.775,97
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA	AURREKONTUA (MILIOI €)
Azpiegitura berriak	76,87
Galtzada bikoiztea	3,59
Ahalmena handitzea	17,06
Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea	52,07
Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea	0,00
Gipuzkoa guztira	149,60

6 Planaren garapen aurreikusgarria

Plangintza-proposamenak aurreikusitako garapen- eta gauzatze-tresnen arabera garatuko dira.

Plan honen ondoriozko proiektuek gai horretan indarrean dagoen ingurumen-legerian bildutako ingurumen-ebaluazioko suposizioen ondoriozko prozedurari erantzungo diote. Gaur egun hauek dira:

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babestekoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Plana eta haren gainerako jardunak zenbait hiruurtokotan garatuko dira, lehentasunen, definizio-mailaren, garapen-ahalmenaren eta behar duten inbertsio ekonomikoaren arabera. Horregatik guztiatik, proiektua lau hiruurtokotan banatu da:

1. 2017-2019
2. 2020-2022
3. 2023-2025
4. 2026-2028

7 Ingurumenaren egungo egoera

7.1 Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen-ezaugarriak ingurunearen diagnostiko orokor baten bidez zehaztu dira, planak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginen —positiboen zein negatiboen— irismena ezagutzeko.

Ingurumen-analisi horrek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen balioen ikuspegi globala eskaintzen du. Hortaz, egungo ingurune fisikoa, naturala, sozioekonomikoa eta kulturala eta ingurumen-arriskuak aztertzen dira. Analisi horri eskala objektiboan erakusten den ezaugarritze kartografikoa gehitu zaio.

7.2 Ingurune fisikoa

Dokumentu honetan aipatzen den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoa dugu aztergai eta hura osatzen duten hiru lurralde historikoak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), 15 eremu funtzionalak, 20 eskualdeak eta 251 udalerriak.

7.234,8 km²-ko azalera du eta muga egiten du: iparraldean, Kantauri itsasoarekin; mendebaldean, Kantabria autonomia-erkidegoarekin eta Gaztela-Leon autonomia-erkidegoarekin (Burgosekin); ekialdean, Nafarroa foru-erkidegoarekin, eta, hegoaldean, Errioxa autonomia-erkidegoarekin. Arabak 3.037,3 km²-ko azalera du, Bizkaiak 2.217,2 km²-koa eta Gipuzkoak 1.980,3 km²-koa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan bi enklabe erreferente dago: Bizkaian, Villaverde Turtzioz (Kantabria) eta, Araban, Trebiñuko Konderrria (Burgos).

Euskal Autonomia Erkidegoak 1.600 metroko altueratik beherako kotak dituen erliebea du (Aitxuri 1.548 m eta Gorbeia 1.481 m) eta batez beste 660 metroko altuera du. (ikus 1. mapa).

Hiru lurraldeek 15 eremu funtzional dituzte, eta horiek eskala egokia dira plan honen garapenerako.

1. Enkartzioetako eremu funtzionala
2. Goierriko eremu funtzionala
3. Bilbo Metropolitarrako eremu funtzionala
4. Donostia-Beterriko eremu funtzionala
5. Durangaldeko eremu funtzionala
6. Debarreneneko eremu funtzionala
7. Busturialdea-Artibaiko eremu funtzionala
8. Arratiako eremu funtzionala
9. Arabako Errioxako eremu funtzionala
10. Aiarako eremu funtzionala
11. Debagoieneko eremu funtzionala

12. Mungiako eremu funtzionala
13. Toloserriko eremu funtzionala
14. Araba Erdialdeko eremu funtzionala
15. Urola-Kostako eremu funtzionala

Ingurumen-dokumentu estrategikoan, honako ingurumen-balio hauek deskribatu dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan:

- Erliebea.
- Klima.
- Klima-aldaketa eta horrekin lotzen diren mehatxuak.
- Airearen kalitatea eta berotegi efektuko gasen atmosferarako isuriak.
- Zarata.
- Geologia eta ondare geologikoa.
- Hidrologia.


7.3 Ingurune biotikoa

7.3.1 Biodibertsitatea

Euskal Autonomia Erkidegoa da —Errioxarekin eta Nafarroarekin batera— **espezieen aberastasun** handiena duen autonomia-erkidegoetako bat, Lurreko Espezieen Espainiako Inbentarioaren arabera (MAGRAMA). Arabako lurralde historikoko zenbait laukitan gora egin du espezieen kopuruak.

Lurreko Espezieen Espainiako Inbentarioaren helburua da 556/2011 Errege Dekretuaren premiak eta eskakizunak gogobetetzea (556/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa garatzeko). Lurreko Espezieen Espainiako Inbentarioak Espainiako faunaren eta floraren banaketa, abundantzia eta kontserbazio-egoera jasotzen du.

Aberastasun horren barruan hegaztien, ugaztunen, anfibioen, narrastien, arrain kontinentalen, ornogabeen eta flora baskularraren eta ez-baskularraren espezie adierazgarriak daude. Mapa honetan islatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko egungo biodibertsitatearen egoera



1. irudia: Euskal Autonomia Erkidegoko espezieen aberastasuna, kopuruaren arabera. Data: 2017ko martxoa. Zerbitzura sartzeko URLa: <http://wms.magrama.es/sig/Biodiversidad/RiquezaEspecies/wms.aspx?>

Euskal Autonomia Erkidegoa erresuma Eurosiberiarraren eta Mediterraneoaren artean kokatzen da, eta ondo kokatuta dago migrazio-ibilbideetan; hartara, zona hau egonaldiako zona onenetako bat da faunarentzat eta florarentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko lauki gehienetan 140 espezieetik gora daude, batez ere Araban. Bilbo - Laudio / Laudio - Zornotza eta Elgoibar-Eibar-Bergara bide-ardatzak aberastasun txikiagoko zonak dira, 110 eta 140 espezie artean. Espezie-aberastasun txikieneko eremuak, berriz, Bizkaiko kostaldeko zona zehatz batzuetan daude.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan guztira 9.577 fauna-espezie konputatu da (2016ko urtarrila) eta honela banatuta daude taldeen arabera: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/>

TALDEAK	KOPURU OSOA
Anfibioak	21
Araknidoak eta beste kelizeratuak	128
Hegaztiak	419
Koniferoak eta beste gimnospermak	57
Koralak eta marmokak	19
Krustazeoak	59
Itsas izarrak eta trikuak	9
Harrak	92

TALDEAK	KOPURU OSOA
Iratzeak eta antzekoak	139
Onddoak eta likenak	1.290
Intsektuak eta beste hexapodoak	1.427
Ugaztunak	109
Moluskuak	175
Goroldioak, antozoak eta hepatikoak	524
Arrainak	123
Lore-landareak	5.867
Protozooak	34
Narrastiak	56
GUZTIRA	10.548

Ingurumen-dokumentu estrategikoan deskribatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan, honako ingurumen-balio hauek, Natura 2000 Sareko espazioak eta Naturagune Babestuak nabarmenduta:


- Landeria, flora eta lurzoruen erabilerak
- Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda
- Arriskuan dagoen flora
- Fauna
- Interes komunitarioko habitatak
- Natura 2000 Sareko espazioak
 - Kontserbazio Bereziko Eremua
 - Kontserbazio Bereziko Eremua - Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua
 - Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua
- Naturagune babestuak
 - Zuhaitz bereziak
 - Biotopo babestuak
 - Parke naturalak
 - RAMSAR hezeguneak
 - Biosferaren erreserba
- Intereseko naturaguneak
 - Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen interes naturalistikoko eremuak
 - Naturagune garrantzitsuen katalogo irekia
- Konektagarritasun ekologikoa

7.4 Baso-ingurunea

Atal honetan Euskal Autonomia Erkidegoko basoguneak jaso dira, eta horietatik ondorioztatzen da bertako landaredia-azalaren eta onura publikoko mendien datuak. **Paisaiaren kalitatea**

Euskal Autonomia Erkidegoan paisaia babesteko konpromisoa Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) jaso zen. Estrategia horren barruan, 3. Helmugako helburuen artean daude Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa prestatzea eta, gero, katalogatutako paisaietako bakoitzerako kontserbazio- eta leheneratze-planak idaztea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa —aurreproiektua 2005eko abenduan aurkeztu zen (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila)— helburu eta funtzio orokor hauek betetzeko lagungarria izango da: (ikus 15. mapa), kontserbazioarekin lotzen da batik bat. Horrez gain, baliagarria izango da paisaiei berezitasuna edo nolakotasun bikaina ematen dieten elementuak edo alderdiak identifikatzeko eta, hartara, aurrerago, kalitate paisajistikoko helburuak eta kontserbazioa ziurtatuko duten neurriak proposatu ahal izateko.



2. irudia: Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezien eta apartekoen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa. Aurreproiektua. Eusko Jaurlaritza.


2014ko ekainaren 16an EHAAn argitaratu zen 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzen duena.

Dekretu horretan identifikatzen dira, lurralde-antolamenduaren arloan, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko tresnak, hala nola Paisaiaren Katalogoak, Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaiaren Ekintza Planak eta Paisaian Integratzearen Azterlanak.

Helburua da Euskal Autonomia Erkidego osoko paisaiaren katalogoak eta zehaztapenak idaztea. Euskal Autonomia Erkidegoa osatuta dagoen 15 eremu funtzionaletatik, Enkartazioetako eremu funtzionaleko (Bizkaia), Arabako Errioxako eremu funtzionaleko (Araba) eta Urola-Kostako eremu funtzionaleko (Gipuzkoa) katalogoak soilik daude idatzita. Gaur egun, hiru eremu funtzional horien Paisaiaren Zehaztapenak ari dira idazten eta Donostia-Beterriko eremu funtzionaleko Paisaiaren katalogoa.

7.6 Ingurune sozioekonomikoa

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek 15 eremu funtzional mugatzen dituzte lurralde-antolamendua garatzeko. Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bitartez. Eremu funtzionalak eskualde mailako udalaz gaindiko mugaketak dira, eskualde-burutzen baliokideak diren hiriguneetan antolatuta daude. Hori dela eta, esparru egokiak dira Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen plangintzarako. (ikus 18. mapa).



3. irudia: Biztanleria-dentsitatea, km²-ko, EAEko eremu funtzionaletan. Iturria: Eusko Jaurlaritza. geoEuskadi.

Ingurumen-dokumentu estrategikoan, atal hauek deskribatu dira:

- Demografia
- Ekonomia-jarduerak eta enplegua
- Mugikortasuna
- Kultura-bitartekoa

7.7 Ingurumen-arriskuak.

Ingurumen-dokumentu estrategikoan lurzoruaren kutsadurarekin lotzen diren arriskuak eta/edo arazoak eta lursailekin lotzen diren arazoak ikus daitezke.

Lurzoruaren kutsadurarekin lotzen diren arazoak

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua
- Hidrologiarekin lotzen diren arazoak (akuiferoen kalteberatasuna eta urpegarritasuna)

Lursailekin lotzen diren arazoak:

- Higadura-arriskuak
- Sismikotasuna

8 Planaren ingurunearen ingurumen-diagnostikoa

Kapitulu honetan errepide-planak zer esparrutan jarduten duen aurkezten da. Aurrez, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruaren lehen ezaugarritzea egin da, baita espazio horretako errepide-sarearen eta parte hartzen duen ingurumen-prozesuen integrazioaren ingurumen-analisia ere.

8.1 Diagnostikoaren planteamendua

Ingurumen-ezaugarritzea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko sare funtzional osorako egin da, eta, horretarako, bertan dauden ingurumen-balio nagusiei eta banaketa geografikoko araei erreparatu zaie.

Analisiaren bigarren atala bi alderdi hauetan zentratu da: batetik, bide-sarea osatzen duten tarteen baldintzetan eta, bestetik, kalitateko eremu sentikorren identifikazioan eta sarea osatzen duten tarteekin duten erlazioan. Bi alderdi horiek uztartu dira bide-sareak ingurumenean duen integrazioa aztertzeko. Azterketa horretan, parametro sinpleak ezarri dira errepide tartearen eta haren ingurumen-testuinguruaren balioen arteko erlazioa balioztatzeko.

Errepide-sareko analisi horri esker, errepide-sarea osatzen duten tarteen ingurumen-kategorizazioa ondoriozta daiteke eta, hartara, errepidearen problematika zehazten duen oinarritzko ingurumen-profila defini daiteke, baita, hori abiapuntu izanik, errepidean egin daitezkeen jardunak ere.

Atal hau 21/2013 Legeak eta 211/2012 Dekretuak ezarritako eskakizunen arabera planteatu da —21/2013 Legea, abenduaren 6koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa eta planen eta programen ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren edukia arautzen duena, eta 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena—.

Ingurumen-ebaluazioaren hirugarren atalean, planaren jardunaren mende dauden egungo ingurumen-balioak eusten dituzten mekanismoen eta prozesuen interpretazioa egiten da, baita horien estrategien eta jardun zehatzen interpretazioa ere. Bertan, planaren jardunen mende dauden espazioei dagozkien oinarritzko ingurumen-unitateak definitzen eta ezaugarritzen dira. Ingurumen-unitate horiek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ingurumen-sistemak islatzen dituzte eta, bide horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren araudiaren eskakizunak betetzen dira.

Azkenik, xede-sarearen analisia egitean, eremu funtzionalak banatu da lurraldea, eta, eremu funtzional bakoitzerako, ingurumen-osagairik nabarmenenak ezaugarritu dira.

Plana garatzen den ingurunearen ezaugarriak finkatzean, Lurralde Plan Partzialak idazteko esparrutzat definitzen diren eremu funtzionalak hartu dira analisi-unitatetzat —Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 4. artikulua hala definitzen ditu (28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituena)—. Lurralde-segmentazio horrek islatzen ditu, gainera bada ere, bizitegiko eta jarduerako zentroen arteko erlazio funtzionalak eta espazioaren banaketa fisikoa. Aditza eman behar da, analisi hori ingurunearen errealitatearen lehen hurbilketa bat dela, eta ez dela zorrotz-zorrotz hartu behar. Ingurunea osatzen duten ingurumen-alderdik adierazgarrienak nabarmentzeko hasierako modu bat besterik ez da.

8.2 Ingurumen-sentsibilitatearen aldagaiak

Horren barruan, kalitateko eremu sentikor multzo handia hartu da kontuan, eta eremu horiek errepide-sarearekin eta horiek izan ditzaketen jardunekin nola erlazionatzen diren hartu da aintzat. Zuzeneko intrusioa aintzat hartzen duten zonako aldagaiak definitu dira (eremu sentikor horietan zehar errepide-tarteak agertzea islatzen dute), baita zeharkako intrusioa edo hurbiltasuneko zonako beste aldagai osagarri batzuk ere (errepide-tartearekin lotzen diren prozesuen, emisioen edo arriskuen bidez eremu horien gaineko zeharkako balizko eragina islatzen dute).

Zonako ingurumen-aldagai horiek bide-sareko tarte bakoitza zer ingurumen-profiletan txertatzen diren deskribatu nahi dute. Hautatutako zonako aldagaiak erreproduzitzen dute zer ingurumen-balio diren sentikorrak tarte bakoitzaren inguruan agertzen diren errepideetako jardunekin. Hauek dira:

INGURUMEN ALDAGAIK	PISUA
Erliebe determinatzailea (RELIEVE tauletan)	0,5
Ezgonkortasun geologikoa-geoteknikoa (INESTABIL tauletan)	0,5
Higagarritasuna (ZONASEROSI tauletan)	0,5
Ondare geologikoa (PTGEOLOGIC1 eta PTGEOLOGIC2 tauletan)	0,8
Lur gaineko hidrologia (REDHIDRIC tauletan)	1
Akuiferoen kalteberatasuna (VULNERA tauletan)	1
Urpegarritasuna (ZFP)	1
Naturaguneak (OENA, OENB, RENA eta RENB tauletan)	1
Interes bereziko flora (FLORA1, FLORA2, BOSQUES tauletan)	1/1/0,5
Interes bereziko fauna (ESPECIES1 eta ESPECIES2 tauletan)	1
Paisaiak (PAISAJE tauletan)	1
Naturaguneen katalogo irekia (CAT)	0,8
Korridore ekologikoak (CORECOL)	1
Populazio-eremuak (POBLACIÓN eta POBLACION2 tauletan)	0,8
Nekazaritza-lurzoruak (SUELOS tauletan)	1
Kultura-ondarea (PATRI tauletan)	1
Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua (SUECONT tauletan)	0,8
Onura publikoko mendiak (MUP tauletan)	0,8

Tarte bakoitzean, eremu sentikor horietan luzera handiagoko edo txikiagoko presentzia duen hartzen da aintzat, betiere adierazita haren luzeraren % 60 baino gehiago eremu sentikorrean dagoen (aldagaiaren 03 balioa), haren luzeraren % 30 eta % 60 artean dagoen (aldagaiaren 02 balioa), haren luzeraren % 0,1 eta % 30 artean dagoen (aldagaiaren 01 balioa) edota interferentziarik ez duen (aldagaiaren 0 balioa). (adibidez, tarte batek luzeraren % 45 bertako basoko eremu batean duenean eta % 5 soilik paisaia berezi batean duenean, BASOAK aldagaiak 02 balioa izango luke tarte horretarako eta PAISAIA aldagaiak 01 balioa izango luke). Aldagai batzuetan, % 0,1 eta % 5 arteko datuetan edo balioan barnean hartzen dira.

Analisisa egiteko Informazio Geografikoko Sistema bat eraiki da eta sistema horrek oinarritzko jarduntarteen arabera egituratutako bide-sarea txertatzen du —2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrean definitzen denaren arabera—, baita eremu sentikorreko 18 taldeak irudikatzeko beharrezkoak diren geruzak ere. Tarte bakoitzak lotuta du zonako 26 oinarritzko aldagai barnean hartzen dituen erregistroa. Aldagai horiek erreproduzitzen dituzte zuzeneko intrusioko zonako hamasei aldagaiak (RELIEVE, INESTABIL, ZONASEROSI, PTGEOLOGIC₁, REDHIDRIC, VULNERA, ZFP, OENA, OENB, BOSQUES, FLORA₁, FLORA₂, ESPECIES₁, PAISAJE, CAT, POBLACIÓN, PATRI, SUECONT, MUP eta SUELOS) eta hurbiltasuneko bost aldagaiak (PTGEOLOGIC₂, RENA, RENB, ESPECIES₂ eta POBLACION₂).

Balorazioa antolatzeke helburuarekin, eremu sentikor horietarako integrazioari garrantzi erlatiboko pisu espezifikoa batzuk esleitu zaizkio, kontuan izanik faktorearen garrantzia hainbat erakunde publikoren politikek zuzentzen duten (1,0eko balorazioa), edo antolakundeek zuzentzen duten, edo legea ez den informazioak zuzentzen duen (0,8ko balioa), edo antolakundeek aitortzen ez duten haren interes zientifikoa soilik zuzentzen duen (0,5eko balioa). Balio horiek haztatzen dute tarteak eremu sentikorrean egotearen balioa.

Atal honetan aldagai horien eta eremu sentikorraren arteko irudikatzen duten mapak eta taulak txertatu dira (*adibidez, tarte batek luzeraren % 45 0,5eko pisua duen bertako basoko eremu batean duenenean eta % 5, soilik, 1,0ko pisua duen paisaia berezi batean duenean, BASOAK aldagaiak 01 balioa izango luke tarte horretarako eta PAISAIA aldagaiak 01 balioa izango luke*).

Testu honi txertatu zaizkion mapetan kartografiatu da bide-sareko tarteen eta inguruneen prozesuen arteko integrazioa.

Diagnostikoa egiteko erreferentzia izan dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eremu funtzionalak, eta eremu horietako bakoitzean aztertu da aztergai dugun bide-sarearen tarteen nolako integrazioa duten ingurunean. Lurralde-pieza horien definizioaren xedea beste funtzio batzuk interpretatzea den arren eta oso operatiboa ez den arren —ingurumen-unitateen mailan zein bide-sareen eta mugikortasun-jarraibideen mailan—, unitate horiek erreferentziatzen hartu dira, oinarri gisa baliagarriak baitira horiek erabiltzen dituzten plangintzako beste dokumentu batzuetarako.

Ondoren, horietako bakoitzak dituen tarteen eta ingurumenaren gaineko eraginaren taula gehitu da:

8.3 Xede-sarearen diagnostikoa, eremu funtzionalen arabera

Enkartzioetako xede-sarearen diagnostikoa

Enkartzioetako xede-sareak baldintza-profil txikia edo ertaina du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa). Alderdirik nabarmenenak dira BI-630 errepidearen tarte bat Armañongo eremuan (Kontserbazio Bereziko Eremua, Parke Naturala eta naturagunea) eta korridore ekologikoetan eragina duten bi tarte labur, Balmasedaren hego-ekialdean (BI-626 eta BI-624) eta Escrita mendatean (BI-630).

Garrantzi kualitatibo txikiagoa baina irismen kuantitatibo handiagoa du BI-630, BI-624 eta BI-636 errepideen eta Karrantza eta Cadagua ibai-ibilguen arteko bizikidetzak, arriskuak eragiten baititu urpegarritasun-prozesuetan, balio faunistikoekiko eta floristikoekiko bizikidetzan eta ibai horien funtzio ekologikoetan eta paisaian.

Bigarren maila batean nabarmentzen dira sare horretako errepideak ezegonkortasuneko puntu batzuetatik eta balio handiko nekazaritzako eta basoko lurzoru-eremuetatik hurbil egotea.

Bilbo Metropolitarrako xede-sarearen diagnostikoa

Bilbo Metropolitarrako xede-sareak eragin handiko edo oso handiko baldintza-profila du eta nabarmentzen dira trafiko-karga handiak eta azpiegituretako batzuen dimentsio handiak (batez ere zabalera handiak). Alderdirik garrantzikoena dira eremu metropolitarrako bizi-kalitatearen gaineko eragin negatiboa; izatez, xede-sareko errepideak zarata-maila, hesi-efektu eta arrisku-maila handiekin integratzen dira eta lurzoru kutsatuak agertzen dira.

Bilbo Metropolitarrako eremuak eskualde arteko eta tokiko mugikortasun-ereduak sakondu beharko ditu, batik bat bertako azpiegitura handien intermodalitateari eta egokitzapenari dagokionez.

Era berean, kontuan hartu beharko da trafiko-fluxu handiko errepide nagusien eta hurbileko ur-ibilguen (Cadaguaren, Nerbioiren, Ibaizabalen, itsasadarren edo Ballontiren) arteko elkarbizitza.

Ingurune biotikoari eta paisaiari dagokionez, nabarmentzen da xede-sareak kostaldearekin eta hurbileko eremuekin izan behar duen erlazioa. Kontuan izan behar da BI-637 errepideak Berangon zeharkatzen duen Interes Geologikoko Lekua edo Zierbenako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako eremuetan agertzen den espazioa eta Laudioko eremua, lotura ekologikoko korridorea bereizten duena.

Mungiako xede-sarearen diagnostikoa

Mungiako xede-sarea BI-631 errepideak (Derio-Mungia-Bermeo) soilik osatzen du eta haren baldintza-profil orokorra ertaina/txikia da (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa).

Ingurumen-integrazioaren alderdirik garrantzikoena dira: bizitegi-zonak BI-631 errepidetik hurbil egotearen arriskua —are gehiago inguruetan sakabanatuta dauden txaletak eta baserriak—; arriskuan dauden espezieen interes bereziko eremuetatik hurbil dauden esparruen arriskua; eta baso naturalen eta erdi-naturalen hurbiltasuna, Mungia eta Sollube artean.

Busturialdea-Artibaiko xede-sarearen diagnostikoa

Busturialdea-Artibaiko xede-sareak baldintza-profil txikia edo ertaina du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa). Alderdirik garrantzikoena da hiru errepideen eta ibai-ibilguen arteko elkarbizitza: BI-631 errepidea eta Urdaibaiko ibai-sarea (Kontserbazio Bereziko Eremua eta Biosferaren erreserba), BI-635 errepidea eta Oka ibaia (Biosferaren erreserba eta Kontserbazio Bereziko Eremua) eta BI-633 errepidea eta Artibai ibaia

(Kontserbazio Bereziko Eremua). Horrez gain, babes bereziko eremuak ere hurbil daude Berriatua eta Mutriku inguruetan.

Ardatz horien funtzionaltasun hidrikoa eta ekologikoa bideekin eta trafikoarekin uztartu beharko da. Gainera, BI-635 eta BI-633 errepideen tarte batzuk kalteberatasun handiko akuiferoen gainetik bideratzen dira eta Biodibertsitate Zuzendaritzak proposatutako loturako korridore ekologikoak zeharkatzen dituzte.

Hiru errepideak hurbil daude ezegonkortasun ekologikoko eremuetatik, zarataren eragozpenak jasan ditzaketan balizko hartzaileengandik (herrien inguruetan batik bat) eta nekazaritza-kalitateko lurzoruetatik.

BI-631, BI-635 eta BI-633 errepideen presentziarekin, Urdaibai ibai-sareko eta Oka eta Artibai ibaietako funtzionaltasun ekologikoari eta hidrikoari eta uren kalitateari eusteko beharra hauteman da, baita horien paisaietan duten integratioari eta ibilbide luzeko trafikoek hirigune ertainetan sortzen dituzten zarata-eragozpenen prebentzioari eta integratioari ere.

Debabarreneko xede-sarearen diagnostikoa

Debabarreneko xede-sareak baldintza-profil handia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafiko ertain/handia). Alderdirik garrantzikoena lotzen dira trafiko-intentsitate handiko errepide nagusiek hurbileko bizitegi-zonetako bizi-kalitatean dituzten eraginekin, batez ere Deba ibaiaren haranean, baina baita jendea bizi den beste eremu batzuetan ere. Horrez gain, lurzoru kutsatuak ere agertzen dira Ermuan eta beste kokaleku batzuetan.

Lurralde horien transformazio antropikoko testuinguru orokorrean, bertako mendiek eta ibaiak eraginpean ez dauden barrualdeko eta kostaldeko enklabe batzuetan metatzen dituzte balio ekologikoak.

Xede-sareak zeharkako eragina du Arnoko Kontserbazio Bereziko Eremuan, baina zuzenean du eragina Euskal Kostaldeko Geoparkean eta itsasertza zorrotasunez babesteko zona berezi batzuetan. Gainera, Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko tarteko biotopo babestua dago, eta hori ez dator bat N-634 errepidearen presentziarekin.

Arnoko gunek garrantzi handiko akuifero-sistema du, eta N-634 eta AP-8 errepideetako obren eraginpean egon daiteke.

Deba ibaiaren haranak eta xede-sareak elkarrekin bizi behar dute; batetik, biztanleek mugikortasun eraginkorra behar dute eta, bestetik, ingurumen-balioek arreta berezia merezi dute, eremu funtzionalen duten egoera lehengoratzeko.

Funtsezkoa da xede-sareak banantzen duen eta hain urbanizatuta dagoen eremu honetako korridore ekologikoak mantentzea. Izatez, Bizkaia eta Gipuzkoa lotzen dituen korridore bakanetako bat da, edo bakarra.

Urola-Kostako xede-sarearen diagnostikoa

Urola-Kostako xede-sareak (A-8, N-634 eta GI-631) baldintza-profil handia edo ertaina du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa). Alderdirik garrantzikoena lotzen dira trafiko-intentsitate handiko errepide nagusiek hurbileko bizitegi-zonetako bizi-kalitatean dituzten eraginekin, batez ere Urola ibaiaren haranean eta Zarautzen eta Orion. Horrez gain, lurzoru kutsatuak daude errepideen inguruetan (Azkoitia, Azpeitia eta abar).

Xede-sareak habitaten zatiketaren arloko intrusio handiak ditu, naturagune babestuak (Natura 2000 sarea) saretik hurbil baitaude, batez ere eremu funtzionalaren iparraldean.

Xede-sarearen eta sare hidrologikoaren arteko elkarbizitza argia da Urola eta Oria ibaien haranetan; haatik, sarea tratatu beharko da galeriako basoak, interes komunitarioko habitata eta uren kalitate ona lehengoratzeko, betiere errepideetatik datozen uretarako hautabideak bilatuz.

Ondare geologikoarekin sortzen diren erlazioek ahalik eta jasangarrienak izan beharko dute, intereseko morfologia mantentzeko eta ez hondatzeko, hala nola flysharena eta Getariako saguarena.

Garrantzi handikoa da intermodalitatea eta trafikoen banaketa sustatzeko neurriak ezartzea, neurri horiek egungo mugikortasunaren profila hobetuko baitute, batez ere GI-631 errepidean —Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumaia eta Zarautz parean—.

Xede-sarearen eta sare hidrologikoaren eta galeriako basoen eta zuhaitzien arteko integrazioak eremu funtzionalean kokatzen diren loturako korridoreen garapen ona ezarriko luke.

Donostia-Beterriko xede-sarearen diagnostikoa

Donostia-Beterriko xede-sareak baldintza-profil handia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta ingurumen-mailan baliokideak diren trafiko-karga handiak nabarmentzen dira. Alderdirik garrantzikoena lotzen dira trafiko-intentsitate handiak dituzten errepide nagusiek inguruko bizitegi-zonetako (Andoingo, Lasarteko, Hernaniko, Donostiako, Pasaiako, Errenteriako eta Irungo) bizi-kalitatean sortzen dituzten eraginekin. Horrez gain, nabarmendu behar da errepideetako obrek zona horretan dauden (Oartzunen, Donostian, eta abar) lurzoru kutsatuak hartzeko arriskua dagoela.

Lurraldean transformazio antropikoko testuinguruan (basoberritzea, tarteko eremuetako nekazaritza eta abeltzaintza, eta populazioa eta industrializazioa finkatzea), balio ekologikoak ibaiadarretan eta barrualdeko mendiko eremuetan metatzen dira.

Xede-sarea, halaber, Oria ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremuarekiko (N-634) eta Txingudi-Bidasoko Kontserbazio Bereziko Eremuarekiko (N-121-A, GI-636 eta N-638) paralelo garatzen da, eta guztiz gainditzen du Aiako Harriko Kontserbazio Bereziko Eremua. Bertan daude, halaber, habitata zatikatzeko arriskurik handienak, zonaren kalteberatasun handiaren eraginez.

Hiri-lurzoruaren metaketa eta N-1, A-8 eta AP-8 korridoreen presioa adierazgarriak dira eta uharte naturalak sortzen dituzte. Antolamendu-jarraibideak finkatu behar dira eta zonako ingurumen-profila hobetuko duen jasangarritasuna egituratu eta bilatu beharko da.

Bestalde, presio antropikoak trafiko eragozpenak sortzen ditu bizitegi-eremuen ertzetan eta horiek ere ebatzi beharko dira, intermodalitatea eta trafikoen banaketa sustatzeko balizko neurrien bitartez.

Bestalde, Jaizkibel eta Aiako Harria arteko loturako korridorearen balizko garapena sakondu beharko da. Era berean, errepide horiek paisaian egoki integratzeko neurriak ezarri beharko dira.

Toloserriko xede-sarearen diagnostikoa

Toloserriko xede-sareak baldintza-profil oso handia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta ingurumen-mailan baliokideak diren N-I errepidearen trafiko-karga handiak nabarmentzen dira.

Alderdirik garrantzikoena lotzen dira trafiko intentsitate handiko errepide nagusiek hurbileko bizitegi-zonetako bizi-kalitatean dituzten eraginekin, batez ere Oria ibaiaren haranean.

Bestalde, Oria ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremua eta Araxesko Kontserbazio Bereziko Eremua zeharkatzen dituzten tarteekin soilik du eragina xede-sareak (N-I eta A-15). Nolanahi ere, garrantziko obren ondorioz, Leizaran ibaiaren biotopoen eta Kontserbazio Bereziko Eremuan eragina sortzeko arriskua ere badago.

Egungo sareen beste gorabehera batzuek agerian utzi dute N-I errepideak, Tolosan, lotura duela akuifero kalteberekin eta urpegarritasun-eremu txikiekin.

N-I errepideak bizitegi-eremuen ganean dituen eragozpen handiek berresten dute balizko neurriak ezarri behar direla intermodalitatea eta trafikoen banaketa sustatzeko, eta, hartara, N-I errepidearen egungo mugikortasunaren ingurumen-profila hobetzeko.

Bideen funtzionaltasunaren eta lurzoruen erabileraren jarraibideak antolatzean ingurumen-helburuak ere aintzat hartu beharko lirakeke, jarraibide horietan baitatza egungo ingurumen-baldintzen egitura-jatorria.

Errepide horiek, batez ere N-I errepideak, paisaian egoki integratzeko neurriak ezarri beharko dira.

Goierriko xede-sarearen diagnostikoa

Goierriko xede-sareak baldintza-profil oso handia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta ingurumen-mailan baliokideak diren N-I errepidearen trafiko-karga handiak nabarmentzen dira.

Alderdirik garrantzikoena lotzen dira trafiko intentsitate handiko errepide nagusiek hurbileko bizitegi-zonetako bizi-kalitatean dituzten eraginekin, batez ere Beasain eta Ordiziako bizitegi-zonetatik hurbil.

Xede-sarearen eta Urtsuaren eta Urola ibaien tartekak paraleloan garatzeak ibaiaren ibilgua kutsatzeko arriskua eragin dezake. Bestalde, Etzegarate mendatean, xede-sareak (N-I) eragin puntuala du korridore estrategiko baten ganean —korridore hori Aralar eta Aizkorri-Aratz arteko konexioa da—.

Gaur egungo sarearen eraginei erreparatuta, aipatu behar da Urretxun bat egiten dutela GI-631 errepideak eta interes geologikoko lekuek.

N-I errepideak, Beasainen, bat egiten du ondare geologikoko gune garrantzitsuekin, Oria ibaiaren ertz urperagarriekin.

Bideen funtzionaltasunaren eta lurzoruen erabileraren jarraibideak antolatzean, ingurumen-helburuak ere aintzat hartu beharko lirakeke, jarraibide horietan baitatza egungo ingurumen-baldintzen egitura-jatorria.

Era berean, Etzegarate mendateko korridore ekologiko estrategikoaren balizko garapena sakondu beharko da. Errepide horiek, batez ere N-I errepidea, paisaian egoki integratzeko neurriak ere ezarri beharko dira.

Debagoieneko xede-sarearen diagnostikoa

Debagoieneko xede-sareak baldintza-profil handia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta ingurumen-mailan baliokideak diren GI-627 errepidearen trafiko-kargak nabarmentzen dira, baita Arrasateko eta Bergarako bizitegi-zonetako bizi-kalitatearen ganean duen eragina ere. Bestalde, xede-sareak albo batean soilik du eragina Udaltzako (N-636, Elorriora) eta Aizkorri-Aratzako (GI-627, Araban) ertzetan. Gainera, loturako korridore ekologikoekin gainjartzen dela kontuan izanik, eta gaur egungo sareen gorabeheren ondoren, GI-627 errepideak bat egiten du Deba ibaiaren goi-arroarekin eta haren ertz urperagarriekin.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren ertzean dagoen Arlaban mendatea (GI-627) nabarmendu behar da; horrez gain, arriskuan dauden espezieentzako intereseko eremuaren ertzean eta interes komunitarioko eremuaren ertzean ere badago, eta, gainera, errepidearen bi alboetara bertako basoa dago.

Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate-Begara ingurunean, GI-627 errepidearen trafikoak bizitegi-zonetan eragiten dituen eragozpenak arindu behar direla hauteman da. Ildo horretan, garrantzi handikoa da

intermodalitatea eta trafikoen bananketa sustatzeko neurriak ezartzea, xede-sareko errepideen egungo mugikortasunaren ingurumen-profila hobetuko baitute. Bideen funtzionaltasunaren eta lurzoruen erabilerearen jarraibideak antolatzean, ingurumen-helburuak ere aintzat hartu beharko lirateke, jarraibide horietan baitatza egungo ingurumen-baldintzen egitura-jatorria.

Errepideak paisaian behar bezala integrazteko neurriak ezarri behar dira, batik bat mendiko tartetean, N-636 errepidean ekialderantz (Antzuola), GI-627 errepidean hegoalderantz, N-636 errepidean Elorriora eta N-636 errepidean, Bergararen iparraldean Deba ibaiaren ertzean bideratzen den tartean.

Durangaldeko xede-sarearen diagnostikoa

Durangaldeko xede-sareak baldintza-profil handia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta ingurumen-mailan baliokideak diren AP-8 eta N-634 errepideen trafiko-kargak nabarmentzen dira, N-634 errepidearen ertzetan dauden bizitegi-zonetako bizi-kalitatearen gainean nolabaiteko eragina baitute.

Bestalde, xede-sareak eragina du Urkiolako Parke Naturalean eta Kontserbazio Bereziko Eremuan —BI-623 errepidea pasatzen da bertatik— eta Durango eta Zornotza arteko lotura-korridorean —AP-8 eta N-634 errepideak pasatzen dira bertatik—. Tarte batzuk Ibaizabal, Mañaria, Arriaga eta Zaldibar ibaietako paralelo bideratzen dira, eta ibilguitako urak kutsatzeko arriskuak sortzen dira; bestalde, obrak egiten badira, zona urpegarrien lehentasuneko fluxuko zonak errespetatu beharko dituzte.

N-634 errepidean trafikoak bizitegi-eremuen ertzen gainean sortzen dituen eragozpenak arintzeko aukera sakondu beharko da.

Mendiko tartetean, berriz, errepide-tarte horiek paisaian egoki integrazteko neurriak ezarri beharko dira.

Arratiako xede-sarearen diagnostikoa

Arratiako xede-sareak baldintza-profil ertain/txikia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta ertzetako bikoizketak eragina izan dezake bizi-kalitatean.

Bestalde, xede-sareak soilik eragina du N-240 errepidearen eta Urkiola eta Gorbeia arteko loturako korridorearen elkargunean. N-240 eta BI-635 errepideek ertz urpegarriekin duten lotura (Ibaizabal eta Arratia ibaiak) eta N-240 errepideak paisaian duen integrazioa ere nabarmentzen dira.

N-240 errepidean ibilgailu pisutsuen ehunekoak oso handiak dira eta trafiko-eragozpenak sortzen dituzte bizitegi-eremuetako ertzetan; hori dela eta, faktore hori arintzeko aukera sakondu beharko da.

Aiarako xede-sarearen diagnostikoa

Aiarako xede-sareak baldintza-profil ertain/txikia du (zabalerak, lur-mugimenduak, trafikoa), eta eragina izan dezake A-625 errepidearen ertzetako biztanleen bizi-kalitatean. Nabarmentzekoa da errepide-tarte hauetako ertzen urpegarritasuna: AP-68 errepidearen Uribitarte eta Audio arteko tarteko ertzena, A-624 errepidearen Artziniega eta Menagarai eta A-625 arteko tarteko ertzena (Altube eta Nerbio ibaiak), eta loturako korridorearen eta A-624 eta A-625 errepideen arteko elkarguneena. Era berean, nabarmendu behar da AP-68 autobideak paisaian izan beharreko integrazioa, baita A-625 errepidearen mendiko tartetek eta A-624 errepide osoak izan beharrekoa.

Xede-sarearen trafikoak Amurrioko eta Audioko bizitegi-eremuetako ertzetan sortzen dituen eragozpenak arindu beharko dira, eta korridore ekologikoak garatu beharko dira, korridorea erabiltzen duten fauna-espezieekin batera bizitzeko aukera bermatzearren. Horrez gain, A-625 eta A-624 errepideen eta AP-68 autobidearen zati baten mendiko tartek paisaian integratu beharko dira.

Araba Erdialdeko xede-sarearen diagnostikoa

Araba Erdialdeko eremu funtzionalak hartzen duen azalera handi horren ondorioz, eta bertako ingurumen-balioen ondorioz, xede-sare osoan banatzen dira eraginak eta arriskuak.

- Ingurune geldoan xede-sarea zona higagarriekin eta ez-egonkorrekin batera garatzen da, eraginak eta arriskuak sortzen ditu Interes Geologikoko lau Lekuren gainean, eta sare hidrologikoarekin paralelo garatzen da, barnean direla zona kalteberak eta lehentasuneko fluxuko zonak.
- Ingurune biotikoan, Arabako ibaien Kontserbazio Bereziko Eremuetan eta Gorbeiko Kontserbazio Bereziko Eremuan kokatzen da xede-sarea eutsi behar duen azalera gehiena. Era berean, Baia, Zadorra, Berron eta Ega ibai-korridoreen, AP-68, N-1/AP-1 eta A-132 errepide nagusien eta Zadorrako sistemako urtegien ertzen eta bideen (N-240 eta A-132) arteko bizikidetzak sakondu beharko da.
- Gainera, Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko korridore ekologikoek bermatzen dute Planaren xede-sarearen eta eremu horretako paisaia adierazgarrien arteko bizikidetzak.
- Trafikoaren eragozpenak dagokienez, trafiko maila ertainen eta handien ondorioz, sareko bide nagusiak bizitegi-eremuetatik urrun daude, nahiz eta zona batzuetan eragin puntualak sor daitezkeen.

Sarea berritzeko lanek eragin dezakete nekazaritza-balio handiko lurzoru aberatsak, kultura-ondareko elementuak eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak okupatzea eta narriatzea.

Arabako Errioxako xede-sarearen diagnostikoa

Laburtuta, Arabako Errioxako xede-sareak baldintza txikiak ditu zabalerari, lur-mugimenduei eta trafikoari dagokienez.

Ingurune geldoan duen integrazioaren arloan, nabarmendu behar da Conchas de Haro eta Bastida arteko tartean urpegarritasun handiko eta ezegonkortasun geologikoko zonak daudela, Conchas de Haroko Interes Geologikoko Lekua dagoela eta sare Ebro ibaiarekiko paralelo garatzen dela. Gainera, Ebro ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremua dago eta arriskuan dagoen espezie kopuru handia izaten duten interes bereziko eremuak daude. Zona horri gehitu behar zaizkio Arabako hegoaldeko mendizerren Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztiak Bereziki Babesteko Eremuak —eremu horiek inguru horretatik pasatzen den Ebro ibaiaren tarteraino iristen dira—.

Bestalde, Guardiako aintziren Kontserbazio Bereziko Eremua dago. Kontserbazio Bereziko Eremu horren iparraldeko mugak N-124 errepidearen mugaraino iristen dira, eta errepide horrek eragin handia izan dezake aintziretan bizi diren eta arriskuan dauden espezieen gainean.

Ibaiekiko hurbiltasun horrek eragin ekologikoak ditu, erribera eta ibilgu aberatsetan eragina izateagatik.

Xede-sareak loturako lau korridorerekin batera garatuko dira. Korridore horiek lotzen dituzte Kantabria mendizerra, hainbat intereseko espazio eta Ebro ibaiak.

Azkenik, bertako trafiko-maila txikiarekin konpentsatzen da A-124 errepideak Bastida, Samaniego eta Guardiako hiriguneetan zehar duen antolamendua.

Sarea berritzeko lanek nekazaritza-lurzoru aberatsak okupatzea eta narriatzea eragin dezakete.

N-124 eta A-124 errepideek Ebro ibaiaren ertzetan duten integrazioa sakondu beharko da, ibai ertzen urpegarritasunarekin eta garrantzizko funtzio ekologikoarekin uztartuta. Ildo horretan, A-124 errepidea zeharkatzen duten loturako korridore ekologikoen elkargunearen ebazpena nabarmentzen da.

8.4 Ingurumen-unitate homogeneousen definizioa

8.4.1 Errepide-tarteak kategorizatzeko planteamendua

Errepide-sarea osatzen duten tarteen ingurumen-baldintzen analisi xehatuak aukera ematen du errepide-tarte bakoitzaren profila ebaluatzeko eta errepidea zer motatako ingurumen-problematikan txertatzen den zehazteko —problematika mota horrek eragina izango du errepide-tarte hori mantentzeko lanetan eta planteatzen diren balizko hobekuntzetan—. (ikus 28. mapa).

Errepide-sarerako ingurumen-kategoria hauek proposatu dira:

- **Balio naturalak dituzten eremuetako tarteak:** floraren, faunaren, ekologiaren, ondare geologikoaren eta paisaiaren arloko balioek lehentasuna duten lurraldeetan zehar, batik bat, bideratzen diren bide-sareko tarteak dira —lurralde horiek kalitateko beste ingurumen-atributu batzuk edo ingurumen-atributu kalteberak ere izan ditzakete—.
- **Populazioa duten eremuetako tarteak:** populazioaren bizi-kalitatearen, istripu-arriskuen, soinu-mailen, hesi-efektuaren eta lurzoru kutsatuen arloko balioek lehentasuna duten lurraldeetan zehar, batik bat, bideratzen diren bide-sareko tarteak dira —lurralde horiek kalitateko beste ingurumen-atributu batzuk edo ingurumen-atributu kalteberak ere izan ditzakete—.
- **Haran-hondoko tarteak:** balio hidrologikoek eta urpegarritasunekoek, ur-ibilguekin lotzen diren balio biotikoek eta haran-hondoko populaketarekin lotzen diren balio sozioekonomikoek lehentasuna duten haran-hondoetatik, batik bat, bideratzen diren bide-sareko tarteak dira. Ingurune horietan lurzoru-erabileren arteko konpetentzia handia dago, eta kalitateko beste ingurumen-atributu batzuk edo ingurumen-atributu kalteberak ere egon daitezke.
- **Erliebe determinatzaileko tarteak:** bide berrietarako beharrezkoak diren lur-mugimendu handiekin lotzen diren balioek eta isolamenduaren eta populazio-dentsitate txikiaren ondoriozko balioek (floristikoen, faunistikoen, ekologikoen, paisajistikoen eta abar) lehentasuna duten erliebe irregularreko lurraldeetatik, batik bat, bideratzen diren bide-sareko tarteak dira. Lurralde horiek kalitateko beste ingurumen-atributu batzuk edo ingurumen-atributu kalteberak ere izan ditzakete.
- **Erdi-mailako landa-eremuetako tarteak:** landa-izaerako, nekazaritza-oinarriko, populazio-dentsitate txikiko eta nolabaiteko interesa duten balio naturaleko lurraldeak zeharkatzen dituzten bide-sareko tarteak dira. Erliebea irregularra izan daiteke, ingurumen-profil espezializatu gabea; hortaz, tarte horretan egiten diren jardunek eragin desberdina izan dezakete esparruko natura eta giza balioetan eta balio fisikoetan, eta kalitateko beste ingurumen-atributu batzuk edo ingurumen-atributu kalteberak ere izan ditzakete.

9 Hautabideak aukeratzeko prozesua

9.1 Hautabideen azterketa

Hautabidetzat jotzen dira plangintzako aukera globalak, plan honetan ebaluatzeari eta barnean hartzeari dagokionez.

Hiru hautabide hartu dira aintzat Planaren helburuak, irismena eta proposamenak definitzeko. Ondoren, labor-labor deskribatzen dira hiru hautabide horiek.

9.1.1 o hautabidea edo ez esku hartzekoa

Ez esku hartzeko o hautabideak ekarriko du egungo Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sarea ez aldatzea eta egungo errepide-sarea mantentzea, konfigurazio orokorrari dagokionez zein errepide bakoitzaren ezaugarri geometrikoei dagokienez.

Ez jarduteko hautabide horren ondorioz, errepide-sarea kudeatzeko beste esparru bat ezarriko da, eta, beraz, hautsi egingo da 2005-2016 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorren Berrikuspenean aurreikusten ziren jardun-programen eta jarraibide estrategikoen jarraitutasuna. Etenik geratuko litzateke azpiegitura-premia berrien analisia, baita sarea mantentzeko eta kontserbatzeko lanak ere.

Hautabide honen aplikazioaren ondorioz espero den bilakaerak ez dio konponbidea emango Planak berak ebatzi nahi duen identifikatutako arazoari.

Ez esku hartzeak ekarriko du ez aintzat hartzea 2. Planaren berrikuspenaren hasieratik hona ezarri ahal izan diren lege eta/edo jarraibide estrategikoak, edo 2. Planaren amaieraren ondoren sor daitezkeenak.

9.1.2 Plangintza berriko hautabidea

Hautabide integrala bat dator 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorrean definitutako ikuspegiarekin eta proposamenarekin.

Hartara, hautabide horrek jarraipena ematen die aurreko planetan bildutako helburuei eta irismenei, eta Planaren egiturazaila gisa definitutako helburuak betetzeko premia berrien analisia txertatzen du. Hautabide hori bat dator plan honetan egindako planteamenduarekin, eta gizarte- eta ingurumen-errentagarritasunera begira jartzen du azpiegitura berriei buruzko erabakia, betiere errentagarritasun ekonomikoko helburuak barnean hartuta.

Plangintza berriak inguruabar ekonomiko eta sozial berrira egokituko luke proiektua, diagnostikoaren abiapuntua egungo trafikoetara eta aurreikuspen egokitueta eguneratuta eta hiri-garapenetan aldatetak eginda. Azken urte hauetako istripu-tasen bilakaera ere hartuko luke kontuan.

Hautabide honek hobekuntza ekarriko luke sarea kudeatzeko errepideen plangintzan, eta gehiago hartuko luke kontuan araudi- eta ingurumen-bilakaera eta plangintza orokorreko esparruarekiko koordinazioa. Gaur egungo premiak errepide-sarera egokituko dira, betiere erreferentziazko plangintzako eta arauzko esparruarekin koordinatuta eta jardunak sarearen egungo premietara egokituta.

9.1.3 Joera-hautabidea

Hautabide honen bitartez, azpiegitura berrien proposamenak egin nahi dira, gaur egun dauden eta aurreikusten diren eskariei aurrea hartuta, eta plana zuzendu behar duen jasangarritasun ekonomikoaren ondoriozko aurrekontu-murrizketak aintzat hartu gabe.

Gainera, joera-hautabideak jarraitutasuna eta amaiera emango die aurreko plangintzako aurreikuspenei. Horretarako, ez ditu egungo lehentasunak eta helburuak berrikusiko, eta horrek eragin dezake, besteak beste, inbertsioko, kontserbazioko eta ustiapeneko gero eta kostu handiagoko aurreikuspenen gainzuzkidura.

Lurralde-egituraketa ez da soilik ulertu behar trazadura berriak planteatzen dituen eredu baten esparruan —eskariaren eta, oro har, ereduaren finantza-murrizketaren balorazio egokirik egin gabe planteatzen dituen eredu baten esparruan—. Nabarmenak dira, lurralde-ikuspuntutik benetako abantailarik lortu gabe, azpiegituretan eta zerbitzuetan egin beharreko inbertsioak biderkatzearen arriskuak.

Plangintza-eredu honek auzitan jarri ditu sare globalean (Estatukoan, autonomia-erkidegokoan eta tokikoan) indarrean dagoen plangintzan biltzen diren errepide-proiektuetako batzuk, eta, hartara, sarearen eredu funtzional osoa berrikusi beharra dakar —sarearen eredu funtzionala lurraldea berrorekatzen duten azpiegituren sare gisa ulertu behar da, eta, horretarako, sare horren maila desberdinetan aurreikusten diren ibilbidetan oinarritzen da—.

9.1.4 Planteatutako hautabideen konparazioa

Hurrengo irudian labor-labor jasotzen da aurreko hautabideen konparazioa, Planaren helburuekin lotuta eta helburuetako bakoitza betetzearen balorazio orokor kualitatiboa eginez:

HELBURUA	EZ ESKU HARTZEA	INTEGRALA	JOERETAKOA
Ibilbideen funtzionaltasuna eta Europan zeharreko sareko integrazioa	•	•	•
Jasangarritasun ekonomikoa	•	•	•
Gizarte-jasangarritasuna	•	•	•
Ingurumen-jasangarritasuna	•	•	•
Homogeneizazioa eta azpiegituren zuzkidurako oreka	•	•	•
Irisgarritasuna	•	•	•
Beste organismo eta erakunde batzuekin koordinatzea jardunak	•	•	•

Oharra: Helburua betetzea: • Helburua ez betetzea: •

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorreko sarea 2. planekoa baino luzeagoa da, plan zaharrak barnean hartzen ez zituen errepideak ere hartzen baititu, hala nola Bilboko Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea, AP-8 eta AP-1 autobideak eta Gasteiz-Irun autobia, Eibar barrena.

1.000 biztanleko errepide-zuzkidura ez da nabarmen gehitu aurreko Plan Orokorrarekin alderatuta; izatez, populazioak % 0,23 soilik egin du gora 2010. urtetik hona, eta % 2,68 gehitu dira sareko kilometroak. Desberdintasun hain txiki horiek direla eta, adierazleak ez du aurreko Planarekiko alde handirik.

Plangintza berriak egungo legeriara egokituko luke errepideen geometria, kontuan hartuta kurbadura-erradioak, maldak eta abiadura espezifikokoak.

Agertoki sozioekonomikoa eta mugikortasunekoak aldatu dira, eta plangintza berriko hautabidean aintzat hartu beharko da hori.

Ingurumen-legeria aldatu egin da 2. Planaz geroztik, eta, hartara, 3. Planean Euskal Autonomia Erkidegoak, Estatuak eta Europar Batasunak xedatutako dekretu eta lege guztiak barnean hartu beharko dira.

Hori dela eta, plangintza berriko hautabideak premia sozioekonomiko berriei eta ingurumen-premia berriei erantzungo die, benetako doitasunetara egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak planteatuta.

9.2 Hautatutako soluzioaren deskribapena

1. hautabidea aukeratu da: PLANGINTZA BERRIKO hautabidea. Planaren jardun-programa berrikustean datza, betiere sarearen gainean jarduteko beharren eta diagnostikoaren erreferentziako egoera eguneratuta.

1. hautabideko jardunak dokumentu honetako planaren deskribapenari buruzko 5. atalean jaso dira.

9.3 Jardunetarako hautabideen azterketa

Planteatutako jardunen ingurumen-bideragarritasunari dagokionez, bi estrategia definitu dira planaren mailan:

